

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko urtarrilaren 21a

7. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Club Atlético Osasuna eta bere zorraren berregituratzea onesten duen 26/2014 Foru Legearen aplikazioa direla-eta, Foru Ogasunak izan duen jardunbideari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

Club Atlético Osasuna eta bere zorraren berregituratzea onesten duen 26/2014 Foru Legearen aplikazioa direla-eta, Foru Ogasunak izan duen jardunbideari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko uztailaren 31n eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio txostena, Foru Ogasunak izan duen jardunbideari buruzkoa, Club Atlético Osasuna eta bere zorraren berregituratzea onesten duen 26/2014 Foru Legearen aplikazioa direla-eta, Kontuen Ganberak egina, izan duen jardunbideari buruzkoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren ganean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko uztailaren 31n

Lehendakaria: Ainhua Aznárez Igarza

Club Atlético Osasuna eta bere zorraren berregituratzea onesten duen 26/2014 Foru Legearen aplikazioa direla-eta, Foru Ogasunak izan duen jardunbideari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Helburua eta norainokoa (4. or.).

III. 26/2014 Foru Legea, abenduaren 2koa, Club Atlético Osasunak Nafarroako Foru Komunitatearekin duen zorraren berregituratzea onesten duena (5. or.).

III.1. Zioen azalpena (5. or.).

III.2. Artikuluak (6. or.).

IV. Ondorioak (9. or.).

IV.1. Club Atlético Osasunak 2014ko abenduaren 31n zuen zorraren kuantifikazioa eta zerga-zorraren bilakaera 2005-2014 epean (9. or.).

IV.2. Nafarroako Zerga Ogasunak zergaren arloko araudia betetzea (14. or.).

IV.3. Klubak ondasunak eskuratzea, zorraren diferentziala eta geroratzea baimentzea (25. or.).

IV.4. Abalak ematea, 26/2014 Foru Legeak aipatzen dituen gainerako baldintzak betetzea eta hari buruzko beste gogoeta batzuk (32. or.).

IV.5. Klubaren aldeko beste jarduketa batzuk (35. or.).

V. Azken laburpena (37. or.).

1. gehigarria. Kanpoko auditoria-txostenak eta Club Atlético Osasunaren finantza-egoeraren bilakaera (2004/05 denboralditik 2013/14 denboraldira) (41. or.).

2. gehigarria. Nafarroako Gobernuak Club Atlético Osasunaren alde egindako aurre-kontu-gastuak eta ordainketen konpentsazioak (2005etik 2014ra bitarteko ekitaldiak) (49. or.).

Behin-behineko txostenari aurkez-tutako alegazioak (51. or.).

Kontuen Ganberaren erantzuna, Club Atlético Osasunak aurkeztutako alegazioei emana (52. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Gobernuak, 2014ko abenduaren 17an egindako bileran, erabaki zuen Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eskatzea Kontuen Ganberak *"auditoria bat egin dezan Nafarroako Ogasunak Osasunari dagokionez 2005etik 2014ra bitarte egin dituen, edo egin behar zituen, jarduketa guztiei buruzkoa"*. Eskari hori egin zen Club Atlético Osasunak Nafarroako Foru Komunitatearekin duen zorraren berregituratzea onesten duen abenduaren 2ko 26/2014 Foru Legearen xedapen gehigarri bakarraren babesean.

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2014ko abenduaren 22an, Kontuen Ganberari eskatu zion txosten hori egin zezan, Nafarroako Gobernuak onetsitako erabakian jasotako moduan.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz eta Eledunen Batzarraren aipatutako erabakia kontuan hartuta, aipatutako fiskalizazio-lana Kontuen Ganberaren 2015eko jarduketa programan sartu da. Halaber, komenigarritzat jo da jarduketa horretan sartzea 26/2014 Foru Legearen aplikazioaren analisia.

Ezer baino lehen, honako alderdi hauek zehaztu behar dira:

- Club Atlético Osasuna (aurrerantzean, kluba) entitate pribatu bat da, Nafarroako Sektore Publikoan sartuta ez dagoena; hori dela eta, Ganbera hau ez da eskuduna ez haren urteko kontuak, ez haren kudeaketa fiskalizatzeko.
- Azterketaren xede diren jarduketa nagusiak tributu-izaerakoak dira, Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak kudeatuak; horrenbestez, lege-murriztapenen pean daude erabilerari eta zabalkundeari dagokienez, Nafarroako Tributuak buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrari jarraituz. Alabaina, aipatutako artikuluko salbuespen gisa aurreikusten du tributu-datuen izaera erreserbatua, eta Kontuen Ganberak haiek baliatu ahalko dituela Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren gaineko ikuskapen-eginkizunetan.
- Kontuen Ganberaren lan guztien emaitzak eta ondorioak txosten publikoetan ageri dira.

Entitate pribatu baten tributu-datuen eta datu ekonomikoen publizitaterako murriztapen hauei konponbidea emateko, 2015eko martxoaren 4an Club Atlético Osasunari baimen espresa eskatu zitzaion txosten honetan sartzeko azterketaren xede den aldiari buruzko informazio hori. 2015eko martxoaren 10ean, klubak, idazki baten bitartez, baimena eman zion ganbera honi aipatutako informazioa jasotzeko.

Txostenak bost atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenean, txostenaren helburuak eta egindako lanaren norainokoa ageri dira. Hirugarrenean, Club Atlético Osasunak Nafarroako Foru Komunitatearekin duen zorraren berregituratzea onesten duen abenduaren 2ko 26/2014 Foru Legearen ezaugarri nagusiak erakusten ditugu. Laugarrenean, gure lanetik ateratako ondorioak islatu ditugu, eta, azkenean, bosgarrenean, amaierako laburpen bat egiten dugu.

Ondorioak osatzeko helburuz, txostenak bi eranskin ditu:

1. gehigarria Kanpoko auditoria-txostenen analisia, 2004-2005 denboralditik 2013-2014 denboraldira¹ bitarte klubaren urteko kontuak eta bere finantza-egoeraren bilakaera aztertu dutenena.
2. gehigarria Nafarroako Gobernuak zer aurrekontu-gastu egin dituen Club Atlético Osasunaren identifikazio fiskaleko zenbakiarekin 2005etik 2014ra bitarteko epean.

Azterketa lana 2015eko otsailetik ekainera bitartean egin dute auditoriako bi teknikarik eta auditore batek osatutako talde batek, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan lankidetzan ere izan dute.

¹ Klubaren ekitaldi ekonomikoa bat dator kirol-denboraldiarekin, eta hartzen du uztailaren 1etik hurrengo ekitaldiko ekainaren 30era bitarte.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko langileei eta Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzagarik.

Era berean, Club Atlético Osasunari ere eskerrak ematen dizkiogu Kontuen Ganberari bai mena eman izanagatik ezagutzera emateko bere datu ekonomiko eta zergen gainekoak.

II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Parlamentuaren eskaria kontuan hartuta eta Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Foru Ogasunak Club Atlético Osasunarekin 2005etik 2014ra bitarte izaniko jardunbidearen legezkotasunaren fiskalizazioa egin dugu.

Era berean, eta Parlamentura igorri beharreko informazioa osatzeko, gure lana zabaldu egin dugu, aztertzeako klub horrek Nafarroako Foru Komunitatearekiko zorra berregituratzeko 26/2014 Foru Legearen aplikazioa.

Txostenaren helburua da, beraz, honako puntu hauei buruzko ondorio batzuk agertzea:

- Zenbateko zerga-zorra sortu duen Osasunak eta dagoen ordaintzeko 2014ko abenduaren 31n, bai eta zer bilakaera izan duen bere zerga-zorrak 2005etik 2014ra bitarteko epean.
- Nafarroako Zerga Ogasunak nola aplikatu duen indarrean den araudia, funtsean honako arloetan: errekerimenduak, interesak, errekarguak, zehapenak eta geroratze/zatikatzak.
- Zenbateko zerga-zorra duen klubak ordaintzeko, behin zor horren ordainetan emandako ondasunen balioa kenduta, 26/2014 Foru Legean aipatzen den moduan.
- Aipatutako foru legean ezarritako gainerako baldintzen betetzea.

Metodologia gisa, lana Espainiako Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Baztordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz gauzatu da, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun prozedura tekniko guztiak bildu dira; arau horien barruan, egindako lanaren tipologiarekin bat datozen ISSAI-ES arauak aplikatu dira. Gure jardunbidean, lanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun prozedura tekniko guztiak bildu dira.

Horrela, Nafarroako Zerga Ogasunak hirugarrenen kontabilitate-sistema laguntzailearen oharpenekin egindako analisiaren bidez, aztertu da ea klubak bete dituen bere betebeharrak fiskalak bai eta zerga-araudia aplikatu ote den geroratze/zatikatzetan, interesetan, errekarguetan eta zehapenetan, zeinak, funtsean, Nafarroako Tributuak buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean eta Nafarroako Foru Komunitatearen Diru-bilketari buruzko Erregelamenduan – 177/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen – baitaude araututa.

Era berean, informazioa eskatu zitzaion bai Ekonomia, Ogasun, Industria Departamentuari, eta bai Nafarroako Zerga Ogasunari. Eskatzen zena zen, funtsean, zerga-zorren egoera eta xehetasunak, klubaren tributu-egoerari buruz egindako txostenak, Nafarroako Gobernuak zer erabaki hartu zituen, geroratze-espedienteak, abalak emateari buruzko espedienteak, klubak Foru Komunitateko Administrazioari emandako ondasunen balorazio-txostena, klubaren urteko kontuei buruzko kanpo-auditoriak eta klubak aurkeztutako bideragarritasun planak. Modu berean, 26/2014 Legean ezarritako baldintzen gaineko espediente eta akordio oro eskatu ziren.

Departamentuak eta Nafarroako Zerga Ogasunak osorik bidali zuen dokumentazio hori guztia.

Tributu-arloan, gure jardunbidea bideratu da egiaztatzea ea aplikatu diren Zerga Ogasunak ezarritako prozedura orokorrak, eta ez dira analizatu eta egiaztatu zergadunak emandako tributu-datuak eta -informazioa.

Azterketa honek hartzen duen denbora tartea 2005etik 2014ra bitartekoa da funtsean. Hala ere, gure lanak honakoak ere hartu ditu:

- 2005aren aurrekoak, jakiteko noiz sortu zen urte horretan agerian gelditu zen zerga-zor hori.
- 2014ri dagozkion tributu-betebeharrak 2015eko otsailera arte luzatzen dira, borondatezko epea kontuan hartuta; azken data hori hartu da kontuan zehazteko zenbatekoa zen 2014ko abenduaren 31n sortutako zerga-zorra.
- 2015eko lehenengo lauhilekoa, 26/2014 Foru Legean ezarritako gainerako baldintzen bete-tzea analizatzeko.

Iruñeko Udalari informazioa eskatu zitzaion klubaren orube batek dituen hirigintza-zamei bu-ruz, klubak Foru Komunitatearen alde hipotekatu baitu, baina Udalak ez dio eskakizunari eran-tzun.

Azkenik, eta txostenaren ondorioak testuinguruan egokiro kokatzeko, ez da ahaztu behar Osasuna –irabazi asmorik gabeko kirol-entitatea– egoera kezkagarrian dagoela arlo instituzional eta ekonomikoan, bai eta kirol-arloan ere; egoera are kezkagarriagoa da kontuan hartuta zuzen-daritzako zenbait kide ohi eta klubeko beste langile batzuk nahastuta daudela judizialki ikertzen ari diren zenbait auzitan.

2015eko ekainaren 17an, aurreko auzien instrukzioa egiten ari den epaileak partzialki altxatu du sumarioaren isilpekotasuna eta artxibatu egin du pieza banandua, ez baitu zantzurik ikusi adi-erazten duenik zuzendaritzako kide edo Zerga Ogasuneko funtzionarioek eroskeria- edo prebari-kazio-delituren bat egin izana klubaren gaineko 2008ko ikuskapen-jarduketetan.

III. 26/2014 FORU LEGEA, ABENDUAREN 2koa, CLUB ATLÉTICO OSASUNAK NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAREKIN DUEN ZORRAREN BERREGITURATZEA ONESTEN DUENA

2014ko azaroaren 6an, Unión del Pueblo Navarro eta Socialistas de Navarra parlamentu-taldeek eta Nafarroako Parlamentuko parlamentu-talde Popularrak foru lege proposamen bat aurkeztu zuten Club Atlético Osasunak Nafarroako Foru Komunitatearekin duen zorra berregitu-ratzeko. Parlamentuko Mahaiak azaroaren 10ean onartu zuen proposamen hori, eta erabaki zuen, gainera, presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

Parlamentuak 2014ko azaroaren 27ko Osoko Bilkuran onetsi zuen foru lege hori, eta 2014ko abenduaren 15ean argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Aipatutako 26/2014 Foru Legea irakurrita, honakoak aipatuko ditugu:

III.1. ZIOEN AZALPENA

Zioen azalpenean aipatzen da Osasuna gure gizartean sakon errotutako entitate bat dela, "Nafarroa" marka indartzen duela, zeregin garrantzitsua jokatu duela hezkuntzaren arloan eta kirola egitearenean eta duen jarduera oso onuragarria gertatzen dela, bereziki zerbitzuen sekto-rearentzat.

Hala ere, "Osasuna klubak egun bizi duen egoera ekonomiko eta finantzarioak arrisku larrian jartzen du bere jarduera garatzea".

2003an ere, eta 1/2003 Foru Legearen bidez, abal bat ematea erabaki zen zenbait finantza-entitaterean aurrean, 18,3 milioikoa gehienez ere, zeinetarik gaur egun 7,2 baitaude bizirik.

2008tik, Zerga Ogasunak zenbait jarduketa egin ditu klubak bere egoera fiskala erregulariza zezan, eta, horretarako, zenbait geroratze onartu izan dizkio. Hala ere, kluba bigarren mailara jaitsi izanak larritu egin du klubaren egoera ekonomikoa, eta lehendik ere nahiko ahula zen.

Horregatik onetsi zen aipatutako legea, helburu baitzuen klubaren finantza-egoera egonkor-tzen laguntzea, zerga-zorra berregituratuz horretarako. Jardunbide horren justifikazioa ez zen soilik izan laguntza eman beharra zegoela Nafarroako erakunde enblematiko batek iraun zezan, baizik eta, halaber, konponbiderik onena zela Foru Ogasunaren interesak defendatzeko. Beraz, bi helburu ditu legeak:

- Klubak zerga-zorra osorik ordaintzea.
- Zorraren ordainketa horrek bidea ematea klubari gaur egungo zirkunstantzia finantzarioak gainditu eta ez desagertzeko.

III.2. ARTIKULUAK

Foru legeak zortzi artikulua ditu, xedapen gehigarri bat eta azken xedapen bi; bi eranskin ere baditu.

Helburu bikoitza dut: zerga-zorra berregituratzea, batetik, eta abal bat ematea, bestetik, klubaren zirkulatzaila-beharrei aurre egiten laguntzeko.

Zorraren kuantifikazioa

Zorrak, zenbatuta, 55,03 milioi egiten du guztira –Foru Legearen I. eranskina–; hona hemen, xehakaturik:

Gerorapen espedientea	Zor mota	Ordaintzeke dagoen printzipala	Interesak+errekar guak	Interesak 2014/11/28	Guztira
09/40511	BEZeko arrunta eta atxikipe-nak	8.154.825		8.736	8.163.561
12/71798	Arrunta eta premiamendua	7.031.082	1.516.718	1.405.253	9.953.053
12/71797	Arrunta	3.749.210	37.737	633.474	4.420.422
12/74796	Premiamendua	194.647	6.893	34.363	235.904
12/71799	Premiamendua	885.306	223.752	108.056	1.217.113
12/71800	Arrunta	6.822.562	122.742	832.726	7.778.030
13/82441 Aktak	Atxikipenak, arruntean	2.550.616	471.600	211.037	3.233.253
13/82422 Aktak	Zehapena, arruntean	1.215.470	0	100.568	1.316.038
Geroratzeko	Atxikipenak eta BEZa	15.111.282	52.943	384.394	15.548.618
BEZa eta atxikipenak, 2014-12-31ra bitarte		1.160.000			1.160.000
Guztira		46.875.000	2.432.385	3.718.607	53.025.992

Foru legeak, 6. artikulua arabera, Osasunak Nafarroako Foru Komunitatearekin 2014ko abenduaren 31n daukan zerga-zor osoa hartzen du aintzat; zor hori foru legeak araututako operazioak betetzearekin iraungiko baita. Horrela, espresuki aipatzen du eraginik gabe geldituko direla zor hori dela-eta onetsitako geroratzeko-, zatikatze- edo/eta premiamendu-ebazpen guztiak, eta liberaturik geldituko direla ebazpen horiek betetze aldera eratutako berme guztiak, zein ere diren.

Zorraren azkentzea eta diferentziala

Aurreko zor hori ordaintzeko, klubak honako ondasunen jabetza eskualdatu zion Foru Komunitateari –foru legearen II. eranskinean daude zehaztuta–:

Izena	Katastroko erref.	Jabetza Erreg. /atala	Libu bu-rua	Libu-rukia	Fo-lia	Finka	Ins-krip.
Kirol zuzkiduretarako eraikin bukatua, Sadar kalea, 59-D (Iruña)	05/1648/01/001	Iruñeko 7. jabetza-erreg.	508	508	4	17394	2.a
Pisua, Alfontso Borrokariaren ka-lea, 11-2G, Iruña	04/0199/01/034	Iruñeko 2. jabetza-erreg./bigarrena	333	4328	46	20175	3.a
Pisua, Alfontso Borrokariaren ka-lea, 11-2H, Iruña	04/0199/01/035	Iruñeko 2. jabetza-erreg./bigarrena	333	4328	49	20177	3.a
Zuzkiduretarako eraikin bukatua eta lursaila, Osasuna s-p poligonoan, Taxoareko (Aranguren) 3. poligonoko 571. eta 819. lur-zatiak		Agoizko 1. jabetza-erreg.	177	3383	105	11039	1.a

Izena	Katastroko erref.	Erreg. Jabetza. /atala	Libu bu- rua	Libu- rukia	Fo- lio	Finka	Ins- krip.
Hiri-lurzoru finkatu gabea etorkizu-neko enpresa parkeko e.u.-ko lursailen, Taxoareko (Aranguren) 571. lur-zatian	03/0571/02/001 03/0571/03/001Aç	Agoizko 1. jabetza- erreg.	183	3431	172	11485	1.a
Lurzoru urbanizagarria, zuzkidura publikoetarako –hezkuntza–, XXIII. unitate integratua kalea, so-1 orubea (Iruña)	05/1141/01/001	Iruñeko 7. jabetza- erreg.	162	369	126	9871	6.a

Ondasunok baloratuko dira hirugarren independente batek egindako tasazio-txosten baten bidez, eta hirugarren hori Nafarroako Gobernuak eta klubak izendatuko dute, ados jarrita. Ez da aipatzen zer tratamendu emanen zaien ondasun horiek dituzten zamei.

Era berean, "Nafarroako Foru Komunitatearen interes orokorreko zatitza deklaratzeko diraren eman-dako ondasunak".

Aipatutako ondasunak eskualdatzearen bidez ase ez den zerga-zorraren diferentziala honela ordainduko dio klubak Zerga Ogasunari:

- Interesik gabeko hiru urteko moratoria baten bidez, salbu eta taldea lehen mailara igotzen bada; kasu horretan, moratoria baliorik gabe geldituko da, eta kasuko interesak exijituko dira.

- Hogeita hamar urteko gehieneko geroratze baten bidez. Ondoko baliabideak hartuko dira hori ordaintzeko:

a) Klubak ikus-entzunezkoen eskubideen lagapena dela-eta jasotzen duen % 25, zeina jaso eta berehala transferituko baitzaio Foru Ogasunari, moratoria-aldia bukatutakoan.

b) Klubak jokalarien eskualdatze-eskubideak direla-eta (federazio-eskubideak eta eskubide ekonomikoak) jasotzen duen % 25, zeina jaso eta berehala transferituko baitzaio Foru Ogasunari, moratoria-aldia bukatutakoan.

c) Klubak Nafarroako Gobernutik babes-kontratuak direla-eta jasotako zenbatekoen % 100.

Espresuki aipatu gabe dago geroratze horrek zer interes-tasa izanen lukeen.

Errentamendua eta erabilera-lagapena

Taxoareko kirol instalazioak kokatuta dauden finkak Osasunari errentan ematen zaizkio, bai eta Sadar futbol zelaiaren erabilera laga ere. Errentamendu-kontratuak eta erabileraren lagapenak 30 urteko indarraldia izanen dute.

Errentan emandako finken urteko errenta 75.000 eurokoa izanen da, 2. mailan jarraitzen badu, edo 150.000 eurokoa, 1. mailara igotzen bada. Errenta hori urtero eguneratuko da, Hiri Errentamenduen Legearen arabera.

Osasunak bere gain hartuko ditu mantentze- eta kontserbatze-gastu guztiak, bai eta aipatutako finken erabileratik heldu direnak ere.

Halaber, Nafarroako Gobernuak eskubide lehenetsia izanen du eskualdatutako finketan kirol, hezkuntza nahiz kultur jarduerak sustatzeko, Osasunarekin adostuta.

Abala baimentzea

Ekonomia eta Ogasun Departamentuari baimena ematen zaio Nafarroako Foru Komunitatearen abal bat eman dezan, gehienez ere 4 milioi eurokoa, klubak behar dituen zorpetze-operazioak bermatzeko. Abalak gehienez ere hamabost urteko epea izanen du, eta jasotako dirua osorik itzultzean bukatuko dira horren eragin guztiak.

Adierazten da abal hori emateko baldintzak izanen direla Osasunari 18 milioiko abal bat emateko 1/2003 Foru Legean ezarritako berberak. Halaber, adierazten da 18 milioiko abal horrek bermatutako zorpetze-operazioen nobazio kasuan, abalak indarrean jarraituko duela, gehienez ere hamabost urteko epean nobazioa formalizatzen denetik zenbatzen hasita.

Ikusapena eta kontrola, eta beste baldintza batzuk

Osasunak konpromisoa hartzen du bere estatutuak aldatu eta, horietan, kontrol batzorde bat ezartzeko, non Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkari bat egonen baita, "egiaztatze aldera klubaren kaudimena nahiz foru lege honetan ezarritako betebeharrak betetzen direla –hartara, egoki iritzitako dokumentu guztiak egiaztatu ahalko ditu–, harik eta zerga-zorra osorik ordaindu eta abalak iraungi arte".

7. artikuluan esaten da foru legea onesteak ez dituela erantzun beharretik salbuesten Osasuna klubak zituen aurreko administratzaileak, beren karguetan jardutean erru edo zabarkeria larri egindako egintza edo ez-egiteengatik.

Era berean, baldintza hauek ere jasotzen ditu foru legeak:

- Nafarroako Gobernuak Osasuna klubari eskatzea eta harekin adostea hark kontrata dezan bere kargura kanpo-auditoria bat, 2005etik 2014ra bitartekoa, berariazkoa eta ezeztazina. Auditoria hori Nafarroako Parlamentura igorriko da.
- Nafarroako Gobernuak Osasunari eskatzea eta harekin adostea klubaren bideragarritasunari buruzko planak Gobernuari igor diezazkion, bai eta haren nortasun edo egoera juridikoari buruzko balizko aldaketak ere, ondoren Nafarroako Parlamentuari igortzeko.
- Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eskatzea erabakitzeko Kontuen Ganberari eskatzea honako txosten hau.

Aipatu behar da, azkenik, norbaitek salatu egin zuela modu anonimoan foru lege hau Europako Batzordearen aurrean, "estatu-laguntzatza" jo zitekeelakoan. 2015eko apirilean, Europako Batzordearen Lehiaren Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi zuen salaketa hori artxibatu egin zuela, nahiz eta gaia berrazter daitekeen, "baldin eta salatzaileak bestelako ebidentziak helarazten baditu, edota aldeaz edo moldez beste ebidentziaren bat sortzen bada".

IV. ONDORIOAK

Ondoren, egindako lanetik ateratako ondorio nagusiak azalduko dira.

IV.1. CLUB ATLÉTICO OSASUNAK 2014KO ABENDUAREN 31n ZUEN ZORRAREN KUANTIFIKAZIOA ETA ZERGA-ZORRAREN BILAKAERA 2005-2014 EPEAN.

IV.1.1 Klubaren zerga-zorra, 2014ko abenduaren 31n**1. Klubaren zerga-zorra**

2015eko apirilaren 29an hartutako Erabakiaren bidez eta 26/2014 Foru Legearen aplikazioz, Nafarroako Gobernuak finkatu zuen klubak 2014ko abenduaren 31n Zerga Ogasunarekin zuen zorraren zenbatekoa 52,82 milioiko zela; hona, zehaztuta, ondoko taulan:

Zerga-zorra, 2014 abenduaren 31n	Printzipala	Interesak eta errekarquak	Interesak, 2014-12-31n	Zorra, guztira
Geroratutako zorra	30.744.217	2.446.901	3.559.052	36.750.170
Geroratu gabeko zorra	15.565.335	52.942	452.433	16.070.710
Klubaren zerga-zorra, guztira, 2014-12-31n	46.309.552	2.499.843	4.011.485	52.820.880

Gobernuaren erabaki horren babesgarri izan zen txosten bat Nafarroako Zerga Ogasunak eta Aurrekontuaren Zuzendaritza Nagusiak elkarrekin egina.

Kontuen Ganberak zenbateko hori Zerga Ogasunaren kontabilitate laguntzaileko datuekin alderatu du, eta kontabilitate horren euskarri den dokumentazioarekin, eta konklusioa da zenbateko horrek egoki islatzen duela klubak Nafarroako Zerga Ogasunarekin data horretan zuen zorra.

Erabaki horretan eransten da aurreko zenbatekoak gorabeherak izan ditzakeela; izan ere, Nafarroako Zerga Ogasunak preskribatu gabeko ekitaldiei dagozkien egiaztatze- eta ikerketa-prozedurak jar ditzake abian, eta prozedura horietatik 2014ko abenduaren 31 baino lehenagoko zorrak sor litezke.

Azkenik, adierazten da eraginik gabe gelditzen direla zor horrekin zerikusia zuten geroratze/zatikatzeko eta premiamendu ebatzen guztiak, eta liberatuak, berriz, eraturako berme guztiak. Eragina izaten jarraituko dute, aldiz, geroratze/zatikatzeko ordaintzeko gera litezkeen epe exekutiboko errekarquak.

2. Klubaren zerga-zorra 26/2014 Foru Legean

Foru lege horretako I. eranskinean, klubaren zorra 53,03 milioikoa dela adierazten da, honako taulan ikus daitekeenez:

Zerga-zorra 2014-12-31n (26/2014 FL)	Printzipala	Interesak eta errekarquak	Interesak, 2014-1-28an	Zorra, guztira
Geroratutako zorra	30.603.718	2.379.442	3.334.213	36.317.373
Geroratu gabeko zorra	16.271.282	52.943	384.394	16.708.619
Klubaren zerga-zorra, guztira (26/2014 FL)	46.875.000	2.432.385	3.718.607	53.025.992

Foru Legeak jasotzen duen zorra 205.112 euro handiagoa da Nafarroako Gobernuak 2015eko apirilaren 29ko Erabakian jasotakoa baino. Alde hori, funtsean, hemendik heldu da:

- Foru legeak aipatzen dituen interesak 2014ko azaroaren 28ra arte daude kalkulatuta. Nafarroako Gobernuaren erabakian, kalkulu hori 2014ko abenduaren 31ra luzatzen da.
- Geroratu gabeko zorraren barruan, foru legean kalkulu bat jaso zen BEZak eta PFEZaren atxikipenek 2014ko abenduaren 31ra arte eragindako zorrari buruz. Gobernuaren Erabakian, ordea, zor erreala jaso zen.

3. Klubaren zerga-zorraren analisia, Nafarroako Gobernuaren Erabakiaren arabera

2014ko abenduaren 31n ordaintzeke zegoen zorrari buruz –52,82 milioi–, honakoak ditugu aipagai:

- 2014ko abenduaren 31ra arteko interes eta errekarquak 6,51 milioi egiten dute guztira, hau da, zor guztiaren ehuneko 12.
- Zor horrek, oro har, aplikatzekoa den zerga-araudian ezarritako interes eta errekarquak eragin ditu.
- Geroratuko zorraz ari garenean, geroratze/zatikatzeko espediente itxi gabeetan indarrean den zorrari buruz ari gara. Hona, xehakatuta:

Geroratze-erabakiaren data	Ordaintzeke dagoen printzipala ⁽¹⁾	Interesak, 2014-12-31n	Zorra, guztira
2009ko maiatza	8.300.083	98.919	8.399.002
2012ko abendua	20.653.349	3.131.503	23.784.852
2013ko urria	4.237.686	328.630	4.566.316
Geroratuko zorra, guztira, 2014-12-31n	33.191.118	3.559.052	36.750.170

⁽¹⁾ Printzipalean sartuta daude kasuan kasuko geroratzea onartu arte sorrarazitako interesak eta errekarquak

Geroratze horiek direla-eta, ikus 10. konklusioa.

- Hona geroratu gabeko zorrak, zergaka eta epeka xehakatuta.

Zerga	Urtea	Aldia	Printzipala	2014-12-31ra bitarteko interesak	Zorra 2014-12-14an
Kapital-atxikipenak. Dibidenduak	2009	12. hilab.	5.544	53.053	58.597
BEZa	2013	9. hilab.	644.872	38.516	683.388
BEZa	2013	10. hilab.	416.330	23.155	439.485
Kapital-atxikipenak. Dibidenduak	2013	12. hilab.	69.150	3.164	72.314
Egoiliar ez direnen errenta	2013	12. hilab.	148.727	6.805	155.532
BEZa	2013	12. hilab.	418.393	19.143	437.536
PFEZaren atxikipenak	2013	12. hilab.	6.199.107	283.630	6.482.737
PFEZaren atxikipenak	2014	3. hilab.	72.790	2.503	75.293
PFEZaren atxikipenak	2014	4. hilab.	64.493	1.988	66.481
PFEZaren atxikipenak	2014	5. hilab.	64.471	1.713	66.184
BEZa	2014	8. hilab.	540.996	7.411	548.407
BEZa	2014	9. hilab.	449.782	4.436	454.218
PFEZaren atxikipenak	2014	9. hilab.	6.019.333	59.369	6.078.702
BEZa	2014	10. hilab.	1.860	119	1.979
PFEZaren atxikipenak	2014	10. hilab.	66.003	371	66.374
Sozietateak	2013	Urte osoa	7.413		7.413
Errentamenduen atxikipenak	2014	12. hilab.	1.922		1.922
Kapital-atxikipenak. Dibidenduak	2014	12. hilab.	30.300		30.300
BEZa	2014	12. hilab.	64.657		64.657
PFEZaren atxikipenak	2014	12. hilab.	279.191		279.191
Geroratu gabe zorra, guztira, 2014-12-31n			15.565.334	505.376	16.070.710

Aurreko datuen azterketatik, honakoa azpimarratzen dugu:

- a) Geroratu gabeko zorra 2013 eta 2014 urteei dagokie.
- b) Zenbatekorik handienak bi urte horietako PFEZaren atxikipenei dagozkie –hizpide dugun zorraren gutzizkoaren ehuneko 82 egiten dute–, eta BEZari –ehuneko 16–.
- c) Aurreko zorrari buruz, klubak geroratzeak onar zekizkion nahi zuen. Nafarroako Zerga Ogasunak, ordea, ez du halakorik ebatzen eta/edo ukatzen 2013tik, eta elkarrizketa-epe bat ireki zen aurkitzeko ordainketarako konponbide edo formula behin betiko bat². Halere, fase horretan, klubaren zuzendaritza batzordeak dimititu egin zuen, batzorde kudeatzaile bat osatu zen, eta, ondoren beste zuzendari batzorde bat osatu zen; beraz, bitarte horretan, Nafarroako Zerga Ogasunak ez zuen solaskide exekutiborik eduki egoera aztertu eta konponbide bat aurkitzeko. Foru Ogasunak araudia aplikatuz jartzen zituen exijentziak eta baldintzak ikusita, klubaren batzorde kudeatzaileak, azkenik, bide parlamentarioa aukeratu zuen zorraren ordainketari konponbidea emateko. Zirkunstantzia horiek justifikatuko lukete formalki ez ebatzea eskatutako geroratzeak, eta Nafarroako Zerga Ogasunak ez abian jartzea bide exekutiboaren bitartez kobratzeko prozedura.
- d) Klubak zerga-zorrak ez betetzearen ondorioz, geroratu gabeko zerga-zorra 0,51 milioi handitu da.

² Hala ere, urte hori baino lehenago, ja hitz egiten hasia zen klubaren zerga-zorra ordaintzeko formularen bat bilatu beharraz.

IV.1.2. Zerga-zorraren bilakaera (2005-2014)

Hurrengo bi ondorioetan erakusten da, batetik, nolakoa izan den klubaren zerga-sortzapenen bilakaera, eta, bestetik, nola joan den kluba ordainketak egiten; hori dena 2005-2014 epeari dagokionez. Horrela, ikusten da zerga-sortzapenak guztira 98,83 milioi egin zuela epe horretan, eta horietatik, guztira, 49,97 milioi ordaindu direla.

4. Sortzapenak, urtez urte

2005 eta 2014 bitartean, kontabilitate-urte bakoitzeko zerga-kontzeptu guztiak osotara hartuz, sortzapenak 98,83 milioi egiten dute, hurrengo taulan ikus daitekeenez.

Kontabilitate-urtea	Aitorpenak ⁽¹⁾	Interesak ⁽²⁾	Agentzia exek./errekarguak	Agentzia exek./kostuak	Errekargua, epez kanpoko iza-teagatik	Zerga-zehapenak	Sortzapenak, guztira
2005	2.421.255	20.112	396.798				2.838.165
2006	3.047.279	26.266					3.073.545
2007	4.245.087	29.735			22		4.274.844
2008	12.900.908	58.140	154.955				13.114.002
2009	6.147.301	424.365			1.947.549		8.519.215
2010	8.880.866	576.228	1.485.830	4.065	272.633		11.219.622
2011	10.272.779	377.590	379.971	973	17.210	78.745	11.127.267
2012	8.631.037	488.474	8.671		45.326	141.372	9.314.880
2013	14.233.840	626.485	267.097	4.548	39.374	1.338.133	16.509.477
2014	18.002.773	415.304	-656	9.837	28.208		18.455.467
2015 ⁽³⁾	383.483	0					383.483
Sortzapenak, guztira	89.166.608	3.042.698	2.692.667	19.423	2.350.322	1.558.249	98.829.967

⁽¹⁾ Aurkeztutako aitorpenak, berrikusketak eta aktak kontuan hartuta. ⁽²⁾ Berandutza-interesak eta geroratzeak kontuak hartuta.

⁽³⁾ 2014ko azken epean sorrarazitako zergak kontuan hartuta.

Aurreko taulatik, ondokoa ondorioztatzen ahal dugu:

- Azpimarratu nahi dugun lehenengo ondorioa da zorrak 89,17 milioi egiten zuela, eta, klubaren kudeaketa-erabakien ondorioz, zor hori 98,83 milioiko bihurtu dela. Hau da, erabaki horien ondorioz, klubaren zerga-zorra 9,66 milioi handitu da.

- Handitze hori heldu da, funtsean, berandutza interesetatik –% 32–, agentzia exekutiboaren errekaruetatik –% 28–, aitorpenak epez kanpo aurkezteagatik errekaruetatik –% 24– eta zerga-zehapenetatik –% 16–.

- Urteka begiratzuz, aipatzekoa da berandutza interesak, funtsean, 2009 eta 2014 bitartean sortu zirela, agentzia exekutiboaren errekaruak 2010ean, epez kanpo aurkezteagatik errekaruak 2009an, eta zerga-zehapenak 2013an.

5. Nafarroako Zerga Ogasunak kobrantzak, urtez urte

2005 eta 2014 bitartean, klubak Ogasunari 49,9 milioi ordaindu zizkion guztira, konpentsazioagatiko kobrantzak barne. Hona xehetasunak:

Kontabilitate-urtea	Ohiko kudeaketa	Bide exekutiboa	Geroratzea	Kobrantzak, guztira
2005	437.264	2.400.901		2.838.165
2006	1.946.051		1.226.693	3.172.744
2007	4.103.173			4.103.173
2008	2.307.118	3.623	1.481.529	3.792.270
2009	393.911	12.169	784.628	1.190.708
2010	998.563	21.140	1.878.998	2.898.701
2011	2.001.361	4.065	4.100.634	6.106.060
2012	1.751.086	77.898	4.072.812	5.901.797
2013	7.073.724	2.921.766	2.563.883	12.559.373
2014	4.416.636	31.029	2.954.797	7.402.462
Kobrantzak, guztira	25.428.887	5.472.591	19.063.975	49.965.453

Kobrantza horietatik, honakoak aipatuko ditugu:

- Epe horretako sortzapen guztietatik –ia 99 milioi, kontuan hartuta zerga, interes, errekaru eta zehapen guztiak–, erdia da kobratu dena, gutxi gorabehera.
- Kobratzeko moduari dagokionez, berriz, % 51 kudeaketa arruntaren bidez izan zen, % 38 geroratzei dagokie eta % 11 bide exekutiboari.
- Ikusten da azken urteetan, 2013an bereziki, klubak ahalegin handia egin zuela bere zerga-betebeharrak ordaintzeko. Hartara, aztertutako epearen ordainketen % 64 2011 eta 2014 bitartean egin ziren.
- Aurretik egindako ordainketei dagokienez, 6 milioi inguru heldu dira betebeharrak fiskalak ez ordaintzeak sortutako errekaru eta interesetatik.

IV.2. NAFARROAKO ZERGA OGASUNAK ZERGAREN ARLOKO ARAUDIA BETETZEA

IV.2.1. BEZ aitorpenen eta PFEZaren atxikipenen aurkezpena

6. Aitorpenen aurkezpena

Aztertutako informazioan oinarrituta, puntuok azpimarratu nahi ditugu:

- BEZaren gaineko aitorpena. Aztertutako aldian, hileko aitorpenetatik klubak ehuneko 37 legediak ezarritako epeen barruan aurkeztu zituen. Horri dagokionez, honakoa nabarmendu behar dugu:

a) 2008ko azaroan, klubak 2005ean hasi eta 2008ra bitarteko aldiari buruzko aitorpen osagarriak aurkeztu zituen. Aurkezpen hori heldu da Nafarroako Zerga Ogasunaren jarduketatik (ikus 14. ondorioa).

b) Halaber, BEZaren hileroko aitorpenak batera aurkezten dira; esate baterako, klubak zorren geroratzea/zatikatzeta eskatzen duenean.

c) 2012ko erditik aurrera, ordea, ikusten da klubak zorrotzago betetzen duela haiek aurkezteko data.

- PFEZaren atxikipenaren aitorpenak. Klubak aurkeztutako aitorpenetatik ehuneko 51 epearen barruan egin ziren. Zerga honi buruz, aurreko komentarioak baliogarriak dira, klubak zorren geroratzea eskatutako uneko baterako aurkezpenari buruzkoak.

- Epez kanpo aurkeztutako deklarazio horiei dagokionez, Nafarroako Zerga Ogasunak kasuko errekarquak aplikatu zituen, epez kanpokoak izateagatik (ikus 7. ondorioa).

IV.2.2. BEZaren aitorpena eta PFEZaren atxikipenak epez kanpo aurkeztearen ondoriozko errekarquak

7.a Epez kanpo aurkeztearen ondoriozko errekarquak

Zerga Ogasunak likidazioa egin du zerga hauen aitorpenak –2,34 milioi egiten dute– epez kanpo aurkezteagatik. Hona xehetasunak:

Errekarguak, epez kanpokoak izateagatik	Likidatutako zenbatekoa
BEZa	2.264.582
PFEZaren atxikipenak	73.876
Likidatutakoa, guztira	2.338.458

Egindako azterketatik honako hau nabarmenduko dugu:

- BEZaren aitorpenak direla eta, 2008an Nafarroako Zerga Ogasunak egindako jarduketen ondorioz, zerga horren aitorpenak 2004tik epez kanpo aurkezteagatik errekarquak likidatu ziren. Gero, kasuko errekarquak joan dira likidatzen, kasuan kasu.

- PFEZaren atxikipenetan, ordea, aurreko taulako kopurua soilik 2009tik 2012rako aitorpenei buruzkoa da, 2013an likidatua; ez dago jasota errekarqu horren likidaziorik egin denik, lehena-goko urteak direla eta, baina bai jasota dago epez kanpo aurkeztutako aitorpenak badaudela.

IV.2.3. Errekerimenduak**8.a Zerga Ogasunaren errekerimenduak**

Nafarroako Zerga Ogasuneko hainbat unitatek, egindako jarduketan harira, egindako informazio-eskariez eta zerga-betebeharrak betetzeko berariazko eskariez gainera, honako errekerimendu ofizial hauek igorri zizkioten klubari:

a) Aitorpenak aurkezteko errekerimenduak:

Urtea	Kopurua	Ez-betetzeak, errekerimenduak aurkeztu zaizkionak	Jakinarazpen-data
2006	3878	2003, sozietateen gaineko zerga 2003, hirugarrenetikiko eragiketak 2004, sozietateen gaineko zerga 2004, hirugarrenetikiko eragiketak 2004, Europar Batasunaren barruko eragiketen aitorpen laburtua (2. hiruileko BEZa)	2006/03/23
2006	8217	2005, urteko BEZa 2005, abendu hileko BEZa 2006, urtarileko hileko BEZa 2006, otsaileko hileko BEZa	2006/06/15
2006	12792	2005, 180 zk.ko eredu (urteko errentamenduen atxikipenak) 2004, Europar Batasunaren barruko eragiketen aitorpen laburtua (4. hiruileko BEZa)	2006/08/10
2006	18980	2005, sozietateen gaineko zerga 2006, ekaineko hileko BEZa	2006/12/05
2007	1320	2005, hirugarrenetikiko eragiketak	2007/03/14
2010	61215	2010, ekaineko laneko atxikipena 2010, uztailko laneko atxikipena 2010, abuztuko laneko atxikipena 2010, iraileko laneko atxikipena	2010/12/13
2011	53939	2008, sozietateen gaineko zerga 2009, sozietateen gaineko zerga 2010, urriko sozietateen gaineko zerga (kontura ordaintzea)	2011/09/30
2012	2197	2010, Europar Batasunaren barruko eragiketen aitorpen laburtua (1. hiruileko BEZa) 2011, azaroko laneko atxikipena	2012/02/27
2012	7692	2012, urtarileko hileko BEZa 2012, otsaileko hileko BEZa 2012, martxoko hileko BEZa 2012, urtarileko laneko atxikipena 2012, otsaileko laneko atxikipena 2012, martxoko laneko atxikipena	2012/05/31
2014	11905	2013, 193. zk.ko eredu (kapitaleko errentak)	2014/08/07

b) Zehapen prozeduran zehar egindako errekerimenduak

Urtea	Kopurua	Kontzeptua	Jakinarazpen-data
2009	200023	Hileko BEZa, 05 201004 412	
2009	200024	Hileko BEZa, 06 200867 101	
2009	200025	Hileko BEZa, 06 200868 102	
2009	200026	Hileko BEZa, 06 200872 206	
2011	3659	2010eko BEZa, 190. zk.ko eredu	2011/06/01
2012	200595	Hileko BEZa, 12 677985 101	2012/07/04
2012	200596	Hileko BEZa, 12 677991 102	2012/07/04
2012	200597	Hileko BEZa, 12 678022 103	2012/07/04

c) Bestelako errekerimenduak:

Urtea	Kontzeptua	
2009	Ondare eskualdaketak eta EJD	Bahia eratzeko eskritura, desplazamendurik gabe (240.000 euro) Ez dute eskriturarik aurkeztu
2013	BEZa	Igorritako eta jasotako fakturen eta inbertsio-ondasunen faktura-liburuak 2013-10-23an jaso izana adierazia Ez dute erantzun
2013	BEZa	2012an jasotako fakturen liburua 2014-01-17an jaso izana adierazia Ez dute erantzun

Ikus daitekeen bezala ia ekitaldi guztietan Zerga Ogasunak klubari egindako errekerimendu ofizialak ageri dira, zergak direla-eta izandako ez-betetzeen harira, eta aipatutako Nafarroako Zerga Ogasunaren jarduketatan islatu direnak.

IV.2.4. Geroratzeak eta zatikatzeak**9.a 2001etik 2005era**

Epe horretan ez da inolako geroratzerik izapidetu, zeren eta Gobernuak emandako 18 milioiko abalarekin –1/2003 Foru Legearen bidez onetsia– eta hura eman aurreko baldintza gisa, klubak zerga-zorra guztiak likidatu baitzituen, indarrean zeuden geroratzeak barne.

Beraz, 2003ko maiatzaren 23an, klubak bere zerga-zor guztia, 4,27 milioikoa, kitatu zuen, Hona xehetasunak:

Zerga	Zenbatekoa
Laneko atxikipeak (2001etik 2003ra)	1.546.723
BEZa (2002 eta 2003)	987.079
Beste zerga batzuk (2002 eta 2003)	47.174
Zatikatze-espedienteak	1.686.822
Guztira kitatua, 2003ko maiatzaren 23an	4.267.799

Aipatutako zatikatze-espedienteak 1999ko eta 2000ko ekitaldietan sortutako zerga-zorrari dagokio.

Aurreko eragiketa gorabehera, 2003ko abenduaren 31n, klubak printzipaleko 0,82 milioiko zerga-zorra aurkeztu zuen; honako hau hain zuzen: 1,01 milioi interesekin eta premiamendu-errekarguekin. Zor hori 2003ko ekaineko laneko atxikipenei zegokien. Gainera, ez zuen aurkeztu BEZaren hileroko aitorpena, azkeneko sei hilabeteetakoa.

2004an zerga-zorraren kontabilitate-saldoa zerokoa bazen ere, hamar hilabetetan klubak ez zuen BEZaren hileko aitorpenik aurkeztu.

BEZaren aitorpen horiek ez aurkezteak 2009an, besteak beste, kasuko errekarquak sortu zituen, epez kanpo egoteagatik.

10.a 2006tik 2014ra

Epe horretan, klubari, organo eskudunaren kasuko erabakiaren bitartez, sei zatikatze eta geroratze bat baimendu zitzaizkion guztira, 51,07 milioiko zenbatekoa³ egiten zutenak, eta beste bi ukatu zitzaizkion –3,74 milioi egiten zuten–, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Ebazpen data	Ebazpena	Geroratzea / zati-katzea	Geroratuaren zenbatekoa	Epea (hila)
2006ko apirila	Nafarroako Zerga Ogasunaren ebazpena	Baimendutakoa	1.200.427	3
2008ko ekaina	Nafarroako Gobernuaren erabakia	Baimendutakoa	2.118.000	3
2009ko maiatza	Nafarroako Gobernuaren erabakia	Baimendutakoa	17.317.273	120
2010eko azaroa	Nafarroako Gobernuaren erabakia	Baimendutakoa	9.746.976	⁽¹⁾ 84
2011ko ekaina	Nafarroako Gobernuaren erabakia	Baimendutakoa	7.727.936	⁽²⁾ 60
2012ko abendua	Nafarroako Gobernuaren erabakia	Baimendutakoa	8.293.855	120
2013ko martxoa	Nafarroako Gobernuaren erabakia	Ukatua	2.569.836	
2013ko urria	Nafarroako Gobernuaren erabakia	Baimendutakoa	4.665.343	60
2013ko azaroa	Nafarroako Zerga Ogasunaren ebazpena	Ukatua	1.173.792	
Eskatutako geroratze/zatikatzeak, guztira			54.813.438	
Emandako geroratze/zatikatzeak, guztira			51.069.810	

⁽¹⁾ Nafarroako Gobernuaren 2012ko abenduko erabaki baten bitartez, hura birnegoziatu eta epea 60 hiletan luzatzen da, 2022ra arte.

⁽²⁾ Nafarroako Gobernuaren 2012ko abenduko erabaki baten bitartez, hura birnegoziatu eta epea 60 hiletan luzatzen da, 2021era arte.

Haien alderdi orokorre dagokienez, honakoak nabarmendu behar ditugu:

- Aurreko erabakiek zenbait geroratze/zatikatze izan ditzakete, bai eta aurreko batzuen birnegoziaketa ere. Hartara:

a) 2012ko zatikatzean, Gobernuak, guztira, 22,09 milioi baimendu zituen, zeinak 2010ean eta 2011n baimendutako zatikatzeetatik ordaintzeko dagoen saldotik –8,80 eta 4,99 milioi, hurrenez hurren– eta 2012an sortutako zor berritik –8,29– baitatuz.

b) 2013ko akordioak bi zor-zatikatze bildu zituen, bata PFEZaren atxikipenengatik –3,33 milioi eta bestea zerga-zehapenengatik –1,34 milioi–.

- Epeei dagokienez, horietako lehenengoa –2006koa– hiru hilerako geroratze bat da; zatikatzeak, hasiera batean, oso epe motzerako ematen dira –hiru hilabete horietako lehengorako–; gero, berriz, gutxienez bost urtez eta gehienez 12 urtez luzatzen dira.

- Honako hau da geroratutako zerga-zorraren izaera, nahiz eta kontuan hartu beharra dagoen ez duela beti urte osoa hartzen, zeren eta litekeena baita klubak hilabeteren baten ordainketa aurkeztu eta egin izana.

³ Printzipala gehi erabakiaren egunera arte sortutako interes eta errekarquak sartuta daude.

Ebazpen data	Zerga-zorra	Geroratzea	Geroratuaren zenbatekoa
2006ko apirila	PFEZaren atxikipenak, 2005eko abendukoak	Baimendutakoa	1.200.427
2008ko ekaina	PFEZaren eta beste zerga batzuen atxikipenak, 2007ko abenduan	Baimendutakoa	2.118.000
2009ko maiatza	2004tik 2009rako BEZa, 2008ko PFEZaren atxikipenak, ez-egoiliarren 2008ko eta 2009ko errenta, eta epez kanpo egotearen errekaruak.	Baimendutakoa	17.317.273
2010eko azaroa	Agentzia exekutiboko zorra, PFEZaren atxikipenengatik, 2009ko BEZarengatik eta 2010eko zenbait hilabetetako PFEZaren atxikipenengatik eta BEZarengatik, gehi epez kanpo egotearen errekaruak.	Baimendutakoa	9.746.976
2011ko ekaina	2010eko PFEZaren atxikipenak, 2011ko BEZa eta agentzia exekutiboarekiko zorra, 2011ko BEZari dagokiona.	Baimendutakoa	7.727.936
2012ko abendua	2011ko eta 2012ko PFEZaren atxikipenak eta BEZa, eta 2011ko BEZa dela eta agentzia exekutiboan zegoen zorra. 2010ean eta 2011n emandako geroratze-epeen zabaltzea	Baimendutakoa	8.293.855
2013ko martxoa	PFEZaren atxikipenak, 2012ko abendukoak	Ukatua	2.569.836
2013ko urria	2007tik 2011ra bitarteko PFEZaren zerga-zehapena eta atxikipena	Baimendutakoa	4.665.343
2013ko azaroa	2013ko iraileko BEZa	Ukatua	1.173.792

PFEZaren atxikipenei dagokienez, esan behar dugu ezen, orokorrean, abenduko hilabeteetan, zerga horren bolumen handienaren kontzentrazioa gertatzen dela, jokalarien fitxa ordaintzeko data baita.

- Zerga-araudiaren arabera izapidetu dira, salbu eta 2009ko maiatzekoa, Krisian dauden Enpresak Salbatu eta Berregituratzeko Laguntzei buruzko 3/2000 Foru Legearen eta haren geroko garapenaren babesean izapidetu baitzen. Horrek honako alderdi garrantzitsu hauek ekarri zituen berarekin, besteak beste: izapidetzea eta kontrola funtsean orduko Industria Departamentuak egin zuen eta aplikatutako interes tasa nabarmen txikiagoa da figura hauetan aplikatutako zerga-tasa baino –ehuneko 1,7 eta ehuneko 5, hurrenez hurren–.

- Erabakiekin batera datozen espedienteak aztertuta, ikusten da alde zuzenetik elkarriketak egon direla eta Nafarroako Zerga Ogasunak dokumentazioa exijitu duela, geroratzea/zatikitzea formalki eman aurretik; halaber, eskaria egiten denetik baimena ematen denera, klubak, kasu batzuetan, kopuru jakin batzuk ordaindu ditu zor zituen eta gero geroratzea/zatikitzea eskatu zituen kopuruetatik.

Zorren aurreko geroratzeen guztizkoak agerian jartzen du ezen, behin kluba bere zerga-zorren ordainketan egunean jarri ondoren –2003ko martxoan–, urte horretako erdialdetik aurrera behin eta berriz urratu zituela bide arruntan bere betebeharrak fiskalak, aurkezpeneak eta ordainketak, eta zerga-zorra behin eta berriz geroratze eskariak egin behar izan zituela, kasu errekaru eta interesak jasateaz gainera.

2014ko abenduaren 31n, aurreko geroratzeetatik ordaintzeko zegoen saldoa, data horretara arte sortutako errekaruak eta interesak barne, 36,75 milioikoa zen; printzipalaren zenbatekoa, berriz, 30,74 milioikoa zen.

Bestalde, zehaztu beharra dago ezen, aztertutako aldian eta geroratzeen/zatikitzeen zerga-legedia krisialdi ekonomikora egokitze aldera, urtero aldatzen direla, 2009tik, haiek emateko baldintzetako batzuk –gutxieneko zenbatekoa, epeak, aurretik kontura egin beharreko ordainketaren kopurua, bermeetatik salbuestea...– bai eta beste geroratze bat eskatu ahal izateko geroratze bizien kopuruaren muga ere; egokitzen horren xedea da finantza-zailtasunak dituzten zerga-dunei geroratzea eman ahal izatea, zerga-betebeharrak errazago bete ditzaten. Halaber, araudiak berak aurreikusten du ebazpena emateko eskuduna den organoak salbuespenezko printzipioa emakidan aplikatzea, zenbait inguruabar gertatzen direnean.

11.a Geroratze/zatikatze espedienteen azterketa

Egindako azterketatik, honako hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Espediente guztietan Diru-bilketa Zerbitzuak emandako txostena jasotzen da. Krisian dauden enpresei buruzko Foru Legearen babesean emandakoan, gainera, Industria Berrantolatze Atalaren txosten bat jasotzen da.

- Guztiak organo eskudunak ebatzi ditu, araudiak kasuan kasuko zenbatekorako aipatzen dituen mugei jarraituz.

- Dagokien ekitaldian indarrean zegoen berandutza-interesaren tasa ezarri zaie geroratutako kopuruei. Jada aipatu dugun bezala, garai hartan Industria Departamentua zenak kudeatuari zerga-izaerakoa baino nabarmen txikiagoa den interes-tasa ezarri zion, 3/2000 Foru Legean aurreikusitakoari jarraituz.

- Diru-bilketari buruzko Erregelamenduak aukera ematen du zorrak geroratu edo zatikatze, bai borondatezko epean, bai epe exekutiboan ere, baldin eta zordunaren egoera ekonomiko-finantzarioa dela eta, aldi baterako, garaiz ordaintzeko modurik ez badu eta geroratzea baimenduz eskatzailea zerga-betebeharrak ordainduta gelditzen bada, zorra aldi exekutiboan dagoen kasuetan izan ezik. Zergak ordainduta edukitzeko betebeharrari geroratzeak irauten duen denbora guztian eutsi beharko zaio.

Zenbait kasutan, diru-bilketari buruzko txostenak jasotzen du klubaren egoera ekonomiko-finantzarioak eragozten diola, aldi baterako, zor duen kopurua ordaintzea; beste kasu batzuetan, aipatzen da zorra kobratzeko biderik onena geroratzea baimentzea dela.

- Bestalde, nabarmena da klubak, zorra geroratuta izanda, beste zor batzuk hartu dituela edo/eta ez dituela errespetatu emandako geroratze/zatikatzeak ordaintzeko epeak. Horri dagokionez, Diru-bilketari buruzko Erregelamenduak honako hau dio, laburbilduz: zor arrunta muga-egunera iristen bada zordunak ordainketa egin gabe, aldi exekutibora iraganen da, eta interesak sortuko ditu; baldin eta geroratzea premiamenduzko bidean dagoen zor batena bada, ez ordaintzeak berarekin ekarriko du bermea exekututzea, eta lortutako likidua erabiliko da ordaintzeke dagoen zorra ordaintzeko, eta estali gabeko zorrari dagokion premiamenduak aurrera jarraituko du.

Zatikatzeetan, edozein epe ordaindu gabe mugaeguneratuz gero, joko da egun berean gainerako epeak ere mugaeguneratu egin direla. Bide arrunteko zorra bada, ordaintzeke dauden epe guztiak premiamenduzko bidera pasako dira; zatikatzea premiamenduzko zor batena bazen, jo beharko da bermea eta nahitaezko exekuzioko gainerako bideak exekutatzera.

Hala eta guztiz ere, adierazi behar dugu ezen, aparteko izaerarekin, posiblea dela zorra berriz geroratzea bide exekutiboan.

- PFEZaren atxikipenak Izaera orokorrarekin, aparteko inguruabarretan izan ezik, aldi exekutiboa hasi baino lehen, ezin izanen dira geroratu edo zatikatu PFEZari eta sozietateen gaineko zergari dagozkien atxikipenak eta konturako ordainketak, salbu eta finantza-entitatearen abal solidarioaren bitartez berariaz bermatzen diren kasuetan.

Geroratze guztiek, batek izan ezik, eskatzen dute PFEZaren ondoriozko zorra geroratzea, beste kontzeptu batzuen artean, eta horietako bakarrean ere ez da zor hori bermatu aipatutako abal solidarioaren bitartez.

Horrenbestez, geroratze horiek, printzipioz, ezin ziren eman aldi exekutiboa hasi baino lehen, PFEZaren atxikipenei zegozkielako eta abal bitartez bermatuta ez zeudelako. Iritzi bera adierazten zuten berariaz Diru-bilketa Zerbitzuaren bi txostenek: Nafarroako Gobernuaren 2013ko martxoaren 14ko erabakiaren aurrekoa –erabaki horren bidez, eskatutako geroratzeari ezezkoa eman zitzaion, zeren PFEZa ezin baita geroratu bermea abal solidario baten bidez ematen ez bada– eta PFEZa geroratzeko 2016ko abenduko eskari bati buruzkoa.

Hala eta guztiz ere, aipatutako bi txosten horiek baino lehen eta haien ondoren, PFEZaren hainbat zatikatze baimendu ziren banku-abalik gabe. Diru-bilketa Zerbitzuak jotzen zuen edo eskaintutako bermea nahikoa zela zor geroratuaren zenbatekoa estaltzeko, edo oinarritzat hartzen zuen legezko salbuespen bat badagoela, organo eskudunak berme-ematea partzialki nahiz osoki

barkatzekoa, zordunak ez daukanean zorra bermatzeko ondasun edo eskubide nahikorik eta haren ondarearen exekuzioak eragina duenean zordunaren gaitasun produktiboaren eta enplegu-mailaren mantentzean, edo Foru Ogasunaren interesei kalte handia eragiten dienean.

Azken batez, nagusitzen den argudioa da ezen, zorra kobratu nahi bada, zor hori geroratzearena dela Ogasunarentzako aukerarik onena.

- Zorrak ezin geroratzeko beste arrazoi batzuk. Araudiak honakoa aipatzen du, funtsean:

a) Ukatzeko arrazoiak izan daitezke behar bezala ez frogatzea subjektu pasiboa gai dela geroratzearen epeak betetzeko behar adina baliabide sortzeko, edo geroratzea eskatzen den zorraren zenbatekoak zorraren titularraren funts propioak edo ondare garbia gainditzea. Diru-bilketa Zerbitzuaren aztertutako txostenetako bakarrean ere ez dira gai horiek aintzat hartu; horrenbestez, ez dira inongo ukatze edo geroratzerako arrazoi izan.

b) Lehendik hiru geroratze/zatikatzeko edo gehiago kitatu gabe egotea, ukatze automatikoaren ondorioz, salbu eta aparteko inguruabarretan.

2011ko ekitaldira arte, ez zen ez onartzeko arrazoi automatiko hori gertatu.

Gobernuaren 2012ko Erabakiaren bitartez ebatzitako zatikatzea onetsi zen beste hiru zatikatze lehenagoko kitatu gabe zeudenean; horrenbestez, ez onartzeko arrazoi automatikoa zegoen, aurreikusitako moduan bermatuta ez egotekotan. Horri dagokionez, Diru-bilketa Zerbitzuaren alde aurretiko txostenak jotzen du eskainitako bermeak nahikoak direla kitatu gabeko geroratzeen eta erabaki horretatik eratorritakoen mugaeguneratze guzti-guztiak ordaintzeko. Horrenbestez, ez dago ukatze automatikorako arrazoirik.

Gero, 2013an, araua aldatu egin zen, halako moduz non ez onartzeko arrazoi gisa eskatuko baitzen lau zatikatze edo gehiago batera gertatzea. Horren ondorioz, 2013ko urrikoa baimentzeko modua egin zen.

- Bermeak. Geroratze/zatikatzeko baimentzeko berme gisa, Tributuei buruzko Foru Legeak dio garatu egingen direla berme mota bakoitzak berma ditzakeen baldintzak eta gehieneko mugak. Ez dago jasota aipatutako arau-garapenik egin denik.

Erregelamenduak, bere aldetik, arau gisa ezartzen du subjektu pasiboak finantza-entitate baten abal solidario bat aurkeztu beharko duela. Soilik abal nahikorik aurkezteko ezintasun kasu-etarako, bestelako berme motak aipatzen dira, organo eskudunak aurrez onartu beharrekoak: ondasun higiezin edo higigarrien gaineko hipoteka, lekualdatzea dakarren bahia, fidantza pertsonal eta solidarioa edo nahikotzat jotzen den beste edozein berme.

Hala eta guztiz ere, berme horien salbuespen edo dispentsa –erabatekoa nahiz partziala– gisa jotzen da, funtsean, geroratu beharreko zorraren zenbatekoa erregelamenduz finkatutakoa⁴ –210.354 euro– baino txikiagoa denean –klubari, orde, ezin zaio halakorik aplikatu–, lehendik fidantzapean dauden zorrak direnean edo zordunak ez daukanean zorra bermatzeko ondasun edo eskubide nahikorik eta haren ondarearen exekuzioak eragina duenean zordunaren gaitasun produktiboaren eta enplegu-mailaren mantentzean, edo Foru Ogasunaren interesei kalte handia egiten dienean.

2013ko urtarriletik, gainera, zordunari ahalmena ematen zaio kautelazko neurriak hartzearen ondorioz bermearen ordezea eskatzeko, behin-behineko izaerarekin; horretarako baimena, orde, Administrazioak emanen du, baldin eta arrazoizko arrastoak badaude haiek gabe kobrantza galdu edo kaltetzekoak. Hartara, horrelako neurrien artean, aipatzen dira zerga-itzulketen kautelazko atxikitzea eta ondasun eta eskubideen prebentziozko bahitura; haiek, aseguratuta egon beharko dute erregistro publikoan egindako idatzizko ohar baten bidez, higiezinak izateagatik, edo bahitutako higigarrien gordailuaren bidez.

⁴ Halaber, bermeen dispentsa eman daiteke, betekizunak betekizun, geroratu beharreko kopurua 6.000 eurotik edo 12.000 eurotik beherakoa denean.

Klubari baimendutako espedienteak honako egoera honetan daude:

Ebazpen data	Ebazpena	Bermeak	Geroratuaren zenbatekoa
2006ko apirila	Nafarroako Zerga Ogasunaren ebazpena	Erabateko dispentsa	1.200.427
2008ko ekaina	Nafarroako Gobernuaren erabakia	Dispentsa partziala	2.118.000
2009ko maiatza	Nafarroako Gobernuaren erabakia	Erabateko dispentsa	17.317.273
2010eko azaroa	Nafarroako Gobernuaren erabakia	Bermatua	9.746.976
2011ko ekaina	Nafarroako Gobernuaren erabakia	Bermatua	7.727.936
2012ko abendua	Nafarroako Gobernuaren erabakia	Bermatua	8.293.855
2013ko urria	Nafarroako Gobernuaren erabakia	Dispentsa partziala	4.665.343

Horiei buruz, honakoak aipatu behar ditugu:

a) Erabateko dispentsa. 2006ko espedienteak, hura justifikatuta dago zergadunak alegatu du-elako banku-abala ezin duela eskuratu, eta berme gisa hipoteka daitekeen ondasun higiezinik ez dagoelako; azken egitate horren arrazoia da klubak, 1/2003 Foru Legearen bidez onetsitako Gobernuaren 18 milioiko abala eskuratzeko, ondasun higiezin guztiak hipotekatu zituela Foru Komunitatearen alde. Kontuan hartuta eskatutako geroratze-epearen laburtasuna –hiru hilabetekoa da–, klubaren egoera ekonomikoa eta Nafarroako Zerga Ogasunarentzako balizko kalteak, abal hori baimendu egin zen, araudiak organo eskudunari aitortzen dion salbuespenaren printzipioan babestuta.

Bigarren erabateko dispentsa, 2009ko maiatzekoa, krisian dauden enpresentzako laguntzei buruzko legediaren babesean eman zen. Klubak ez zuen inongo bermerik jarri, zeren eta Industria Departamentuak jo baitzuen halakoak jartzeak kluba ahuldade-egoeran utziko zukeela bankuen aurrean, maileguak eskatzeari begira. Hala eta guztiz ere, klubari eskatu zitzaion aktibo berriak edukitzekotan Foru Ogasunari jakinarazteko, berme gisa erantsi behar baziren ere; hala-ber, eskatu zen haiek berme gisa jartzeko, bai eta enpresaren bideragarritasun-planeari hartutako konpromisoak betetzeko ere. Diru-bilketa zerbitzuaren txostena emakidaren aldekoa da; nolahi ere, baldintza gisa jartzen du etorkizunean zerga-betebehar guztiak bete behar izatea.

b) Dispentsa partziala Bi espedienteak –2008ko ekaineko eta 2013ko urrikoa– oinarrituta daude banku-abala jartzeko ezintasunean; horietako bigarrenean, gainera, egiaztatzen da, hala-ber, ez dagoela berme bihur daitekeen higiezinik. Berme gisa honako hauek jartzen dira: lehenengoan, telebista-eskubideen kobrantza; bigarrenean, UM3-P-1 lur-zatiaren gaineko hipoteka bat. Lur-zati hori 2009an lortu zuen klubak, eremua birzatzitzeko proiektu baten bitartez, eta ez dago jasota urte horretan Zerga Ogasunari jakinarazi ote zitzaion urte bereko maiatzean emandako bigarren dispentsa erabatekoaren eraginetarako.

Bi espedienteak eman ziren Diru-bilketari buruzko Erregelamenduak jasotzen duen salbuespenezko egoerari buruzko araubidean babestuta.

c) Bermatuak. Hiru espediente horiek bermatuta daude bahiturak eratu direlako, bai eta klubak jasotzeko dituen kopuruen gaineko portzentaje-eskubideen bidez ere.

Hartara, klubaren bi finka jakinen gainean ondoz ondoko bahiturak egin dira: Taxoareko futbol eskola eta Sador futbol zelaia. Bi finka horiekin hiru geroratze desberdin bermatzeko, jo da merkatu librean duten balioa kalkulatzera, hasiera batean bermatutako zorraren eta ondasuna berriz bahitzeko uneko zorraren arteko kenketa eginez –logikoa denez, bigarren zorra txikiagoa da epe batzuk ordaindu direlako–.

Horiek osatzen ziren Nafarroako Gobernuarekiko babesletza-kontratuaren ehuneko 100aren gaineko eskubideekin eta ikus-entzunezko eskubideen gaineko portzentajeekin, jokalarien traspasoen ondoriozko eskubide orokorrekin eta jokalarik jakin baten traspasoen gaineko eskubideekin.

Horri dagokionez, Diru-bilketa Zerbitzuaren txosten bat badago, 2014ko urtarrilekoa, non aipatzen baita klubak ez duela bete ikus-entzunezkoen jabea den enpresari Nafarroako Zerga Ogasunaren aldeko lagapena jakinarazteko eta kopuru hori kontu itxi batean zuzenean sartzeko betebeharra; gainera, badirudi, kobrantza finantza-entitate bati ere laga zaiola, nahiz eta ez dugun

jakin zein den lagapenaren portzentajea. Gero, eskubide horien hileko diru-sarrerara batzuk aurkitzen dira, baina ez bera osorik zamatzen duen BEZaren diru-sarrerarik, emakidak exijitzen zuen bezala. 2014ko martxoan, egoera hori erregularizatu zen, klubak telebista-eskubideen edukitzailerari jakinarazpena bidalita; azken horrek fakturaren ehuneko 20ri dagokion kopurua sartzen du, bai eta BEZaren kuotaren ehuneko 100 ere⁵.

Jokalarien traspaso-eskubideen kautelazko bahitura dela-eta Zerga Ogasunak ebazpen bat eman du, non berraztertzeke errekurso bat ebazten baitu, klubak aurkeztua. Errekurtsoaren oinarria da klubak uste duela bahitura horri eusteak biziraupen-arriskua dakarkiola klubari eta, horrenbestez, Ogasunarekin berarekin zeukan zorraren kobrantza-itxaropenak kaltetzen dituela⁶.

Egiaztatu da klubaren higiezinaren gainean dauden zamak, Foru Komunitatearen aldekoak eta jatorria aurreko geroratzeetan dutenak, Jabetzaren Erregistroan inskribatuta daudela.

Laburbilduz, ondoriozta dezakegu geroratze/zatikatzek lege-esparruaren barruan egin direla, eta ia kasu guztietan egin dela salbuespenezko printzipioan oinarrituta, organo eskudunak printzipio hori jasotzen baitzuen, bai eta beste honako printzipio hau ere: zorrak geroratzea baliabide publikoak zaintzeko eta Foru Ogasunarentzako kalteak saihesteko konponbide hobea da zamak ez kobratzea edo exekutatzea baino. Hori guztia klubaren finantza-egoera zailaren testuinguruan kokatua.

12.a Ukatutako geroratze/zatikatzek

Bi ukapenak honakoetan oinarritu ziren:

- 2013ko martxoko espedienteak. Diru-bilketa Zerbitzuaren txostena, non proposatzen baita 2012ko PFEZaren atxikipenen geroratzea ukatzea, abal solidarioa falta zelakoan. Gobernuak eskari hori ukatzea erabaki zuen.

- 2013ko azaroko espedienteak. Diru-bilketa Zerbitzuak proposatu zuen eskatutako geroratzea ukatzea, bai mugaegunera iritsitako zorrak zeudelako, aldi exekutiboan exiji zitezkeenak, bai klubak, eskarian ez duelako ez konturako ordainketarik egin, ez bermerik aurkeztu. Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak ebatzi zuen geroratze-eskaria ukatzea.

Horrenbestez, organo eskudunak bi eskariak ukatu zituen Diru-bilketa Zerbitzuaren proposamenarekin bat.

Klubak aurreko kopuruak ordaindu egin zituen –lehenengo kasuan– edo 26/2014 Legeak jasotzen duen geroratu gabeko zorraren barruan sartu dira.

IV.2.5. Zerga-ikuskapenak eta Nafarroako Zerga Ogasunaren beste jarduketa batzuk

13. Ikuskapena

Aztertutako aldian, Nafarroako Zerga Ogasunaren zerga ikuskaritzak bi ikerketa-jarduketa egin ditu kluba dela eta. Hona gaiak:

- Sozietateen gaineko zerga, 2003tik 2006ra bitartekoa.
- Lanaren eta kapitalaren atxikipenak, 2007ko ekainetik hasi eta 2008tik 2011ra bitarteko ekitaldietan. Gainera, azken jarduketa horren ondorioz, zehapen espediente bat izan zen.

Aurreko jarduketetatik lehena subjektu pasiboak 500 euroko billeteekin egindako eragiketen gaineko egiaztapen eta ikerketa partzial bati dagokio. Egiaztapen-akta bat egin zen, adostasuneko, 2008ko azaroan. Haren ondorioa da ez dela ez akatsik aurkitu, ez hutsegiterik aurkitu aztertutako eragiketetan, eta, horrenbestez, jotzen da egindako likidazioak zuzenak izan direla.

Lehenengo jarduketa horri dagokionez, zehaztu beharra dago kluba ikertzen duen epaile instrukzio-egileak artxibatu egin duela Nafarroako Zerga Ogasunak klubaren aldeko tratua ustez eduki izanari buruzko atal bereizia, delitu-zantzurik ez duelako aurkitu.

⁵ Nafarroako Zerga Ogasunak aurkeztutako alegazio batekin aldatutako lerrokada.

⁶ Nafarroako Zerga Ogasunak aurkeztutako alegazio batekin aldatutako lerrokada.

Bigarrenari dagokionez –lanaren eta kapitalaren atxikipenen berrikuspena–, 2013ko urtarrilaren 11n adostasuneko akta sinatu zen 2,97 milioi egiten duen printzipal baten eta 0,36 milioi egiten duten berandutza-interes batzuen likidazio-proposamenaren gainean. Gainera, horren emaitza gisa, zehapen-espediente bat egin zen, jokalaria batzuen irudi-eskubideen lagapenaren gaineko tributazioa okerra izateagatik eta best jokalaria batzuen kasuan atxikipenak lege ezarritakoak baino txikiagoak izateagatik. Likidatutako zehapena 1,34 milioikoa da, eta adostasunez sinatu zen.

Sortutako zorraren guztizkoa –4,67 milioi– geroratu egin zen Nafarroako Gobernuaren 2013ko urriko erabaki baten bitartez.

14.a Beste jarduketa batzuk

2008ko maiatzean, Nafarroako Zerga Ogasuneko Enpresa Handien Atalak klubari eskatu zion 2004tik 2008ra egindako eta jasotako fakturen erregistro-liburuak aurkezteko, lur-zati baten salmantan BEZaren tributazioa falta zelako. Erosleak eskatua zuen hartatik zergaren itzulketa egiteko. Jarduketa horren eta aurreko ondorioan aipatutako lehenengo ikuskapenaren emaitza gisa, klubak, 2008ko azaroan, BEZaren aitorpen osagarriak aurkeztu zituen, 2004tik 2008ra bitartekoak. Printzipalaren zenbatekoa 8,56 milioikoa da, eta horri 1,94 milioi gehitu behar zaizkio, garaiz kanpo aurkeztearen ondoriozko errekaru gisa.

IV.2.6. Klubaren zerga-zorraren egoerari buruz Zerga Ogasunak egindako txostenak.

15.a Zerga Ogasunaren txostenak

Nafarroako Zerga Ogasuneko hainbat unitatek geroratze/zatikatzak izapidetzeko eta gainerrako jarduketatarako egindako txostenek gainera, honako txosten hauek eskuratu zaizkigu:

- Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari-kudeatzailearen txostena, 2013ko urriaren 3koa. Txosten horretan, Nafarroako Zerga Ogasunak kluba dela-eta 2008tik txostenaren datara arte egindako jarduketan bilduma bat ageri da, non ordaindu gabeko zorren jatorria eta haien bilakera aztertzen baita. Ondorioztatzen da zergaduna “arrisku fiskal handikoa dela, zerga-betebeharrak behin eta berriz urratu dituela, geroratze/zatikatzak emateko bi aldeetako “negoziaziorik” ez dela egon, geroratze gehiago egiterik ez dagoela –ikuskatze-jardueretatik heldutakoa kenduta– eta zerga-zorraren zenbatekoa 45,51 milioikoa dela”. Halaber, aipatzen da txostenak daukan dataren egunean, kluba egunean dagoela aitorpenak aurkezteari dagokionez.

- Diru-bilketa Zerbitzuaren txostena, 2014ko urtarrilaren 27koa. Txosten horretan aztertzen da, lehenengo, zein den 2011tik 2012ra sortutako zerga-zorren egoera; gero, 2013ko zorra dela-eta sortu den egoera aztertzen da. Halaber, jotzen da ikus-entzunezko eskubideen gaineko ehuneko 20ko atxikipena, gaur dagoena, nabarmen askieza dela jada baimendutako geroratzeen ordainketaren etorkizuneko betebeharrak estaltzeko, eta portzentaje horrek igoera substantzialak zailtasunak sortuko lizkiokeela klubaren bideragarritasuna berari.

- Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari-kudeatzailearen txostena, 2014ko abenduaren 19koa. Txosten horretan adierazten da, alde batetik, ezin dela une honetan kalkulatu zein den klubak 2014ko abenduan daukan zor zehatza –zeren eta, borondatezko epearen barruan, oraindik ere ez baita bete azaroko eta abenduko aitorpenak aurkezteko epea–; eta, bestetik, Nafarroako Zerga Ogasuna ez dagoela klubaren ordaindu gabeko zorraren ordainketa 26/2014 Foru Legean ezarritakoez beste modu batera exijitzeko baldintzetan.

IV.2.7. Konpentsazioak

16.a Konpentsazioengatikoa kobrantzak

Aztertutako aldian, Nafarroako Gobernuak klubaren alde egindako aurrekontu-gastuak 9,81 milioikoa izan dira⁷; horietatik, 9,01 milioi 2006tik 2011ra bitarteko ekitaldietako babesletza-gastuei dagozkie.

⁷ Horien xehakatzeari txosten honen 2. gehigarrian ikus daiteke.

Klubaren ordainketa hauetatik, Nafarroako Gobernuari 2,44 milioiko konpentsazioa eman zaio. Hartara:

- 2005eko eta 2009ko ekitaldietan, agentzia exekutiboak zorren gainean egindako ordainketak konpentsatu ditu: 2004ko abenduko PFZAren atxikipenak –38.380 euro– eta bigarren urte horretan geroratze bereziak –960 euro– dira.

- 2010etik 2012ra, 2,4 milioiko gastu-kompentsazioak egin dira. Funtsean, 2010eko babesletzari –1,53 milioi– dagozkio, babesletza hori guztia 2010eko eta 2011ko ekitaldietan konpentsatu baita; 2011ko babesletzari dagokionez –1,56 milioi– soilik azken sei hilekoan –0,78 milioi– konpentsatzen da 2012an. Kompentsazio horiek bideratzen dira, funtsean, zatikatzeen epeetara, PFEZaren agentzia exekutiboko atxikipenetara eta garaiz kanpoko aitorpenengatiko errekar gutietara.

Zehaztu beharra dago konpentsazio horien kopurua 2010ean hasi zela garrantzitsua izaten; hau da, geroratzeak baimentzeko akordioetan babesletzaren bidezko diru-sarreraren ordainketa berme gisa jasotzen denean.

IV.3. KLUBAK ONDASUNAK ESKURATZEA, ZORRAREN DIFERENTZIALA ETA GERORATZEA BAIMENTZEA

IV.3.1. Zorra ordaintzeko formula

17.a Klubaren zerga-zorra ordaintzeko formula

Foru legean, klubaren zerga-zorra ordaintzeko sistema edo formula misto bat ezarri zen; hartara:

- Ondasunetan egindako ordainketa, 26/2014 Foru Legeko II. eranskinak berariaz jasotzen dituen ondasunak emanda.
- Eskudiruko ordainketa, 30 urteko gehieneko mugaeguna duen geroratze baten bitartez (horen barne direla moratoriako edo gabealdiko hiru urteak).

Aipatutako foru legeak aurreko ordainketetan aplikatu beharreko prozedura erregulatzen du, baina ez du zerga-araudi orokorraren aipamen berariazkorik egiten.

Zerga-zorraren azkentzea antzinatasun handienetik txikienerako ordenan eginen da.

IV.3.2. Klubak eskuratutako ondasunak eta haien balorazioa

18.a Enpresa pribatu batek egindako tasazio-txostena

26/2014 Foru Legeak honakoak jasotzen ditu: alde batetik, klubak zerga-zorra ordainketan emateko jarritako ondasunen zerrenda –sei higiezin, guztira–, zeinaren xehetasunak jada aipatutako II. eranskinean ageri baitira; eta, bestetik, aipatzen du haien balorazioa klubak eta Nafarroako Gobernuak adostasunez izendatutako enpresa pribatu batek eginen duela.

2015eko urtarrilean, Nafarroako Gobernuak onartu egin zuen klubak tasaziorako proposatutako enpresa pribatua.

2015eko otsailean, sei higiezin horien tasazio-txostena aurkeztu zen: 43,05 milioiko balioa zuten guztira. Balorazioan, ez dira sartzen haien gainean dauden zamak, nahiz eta aipatzen den zama horiek kontuan hartu beharrekoak izanzen direla haien amaierako balioa finkatzeko.

Nafarroako Gobernuak, 2015eko apirilaren 22an egindako bilkuran, adierazi zuen tasazio horren jakinaren gainean zegoela.

19.a Tasazio atalaren barne txostena

Aipatutako 26/2014 Foru Legea onetsi aurretik, Nafarroako Zerga Ogasuneko Lurralde Aberastasuaren Zerbitzuko Tasazio Atalak, 2014ko urrian, barne txosten bat egin zuen, klubaren titulartasuneko ondasun higiezinaren balorazioari buruz –Nafarroako Zerga Ogasunaren datu-basean agertzen direnena–, “legedi indardunari jarraituz bidezkoak izan litezkeen balizko likidazioetarako justifikazio-agiri gisa balio zezan”. Nafarroako Zerga Ogasunaren estatutu indardunen arabera, Tasazio Atalak bere eginkizunen artean dauzka ondasun higiezinaren gaineko balorazio-irizpenak egitea honako haue-tarako: egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, ondare-eskualdaketen gaineko zergaren eta oinordekotzen eta dohaintzen gaineko zergaren likidaziorako eta ondasun higiezinaren balorazioa beharrezko duten Foru Komunitateko Administrazioaren gainerako jarduketetarako.

Txosten horretan, guztira, klubaren zazpi higiezin jasotzen dira, guztira 35,76 milioiko balorazioa dutenak; 26/2014 Foru Legeak berariaz jasotzen ez duen lur-zatiaren balioa kenduta, balorazioa 30,59 milioikoa izanzen litzateke. Balorazio horretan, ez dira kontuan hartzen haien gainean dauden zamak, baina bai aipatzen da berariaz ezen, aurreko tasazio-baliotik higiezinaren gainean dauden zamak kendu beharko liratekeela, baldin eta zenbatekoaren finkapenean kontuan hartu ez badira.

20.a Bi txostenen alderaketa

Beste ezer baino lehen zehaztu beharra dago txosten pribatua merkatu-prezioen arabera tasazio bat dela eta Nafarroako Zerga Ogasunaren txostena, berriz, balizko transakzio bat zama lezaketen zergen eragin tributarioei begira egindako balorazioa dela soilik. Bi txostenen helburuak desberdinak izateak justifikatuko luke, oro har, irizpide eta zenbatekoetan antzematen den dibergentzia.

Aurreko iruzkina kontuan hartuta, honakoa adierazi behar dugu bi txostenen alderaketari buruz:

- Klubaren jabetzakoa den higiezin bat badago foru legearen eranskinean sartu ez dena; higiezin horrek, Iruñeko UM-3 P1 orube gisa identifikatua, tasazioko txosten pribatuan 4 milioiko balioa dauka eta Ogasunaren zerbitzuen txostenean, berriz, 5,17 milioikoa. Ez dakigu zein arrazoi egon diren hura aipatutako foru legetik kanpo uzteko. Kanpo uzte horrek, gure, iritziz, ulertezina da. Gero –ikus 28. ondorioa–, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen ondasun horren gaineko hipoteka-zama bat jartzea, Foru Komunitatearen aldekoa, lau milioiko abalaren berme gisa.

- Hurrengo taulan aipatutako **bi txostenen** balorazioei buruzko alderaketa erakusten dugu:

C.A. Osasunaren ondasunak	Lurzoru-mota	Erabilera nagusia:	Tasazio pribatua (a)	Ogasunaren balorazioa (b)	Aldea (a)-(b)
Iruñeko Sadar futbol-zelaia	Hiri-lurzoru finkatua	Kirol zuzkidura pribatua	23.543.160	16.219.104	7.324.056
Iruñeko Iturramako bi pisu	Hiri-lurzoru finkatua	Etxebizitza kolektiboa	403.428	371.960	31.468
U.I.XXIII SO-1 lurzorua Iruña	Urbanizagarria	Irakaskuntzarako zuzkidura publikoa	648.364	523.893	124.471
Taxoareko instalazioak	Hiri-lurzoru finkatua	Kirol zuzkidura	14.448.670	7.000.579	7.448.091
Taxoareko etorkizuneko enpresa-parkeko orubea	Hiri-lurzoru finkatu gabea	Jarduera ekonomikoak	4.002.312	6.472.575	-2.470.263
Klubaren ondasun guztiak, 26/2014 Foru Legearen arabera			43.045.934	30.588.111	12.457.823
Iruñeko UM-3 P1 orubea	Hiri-lurzoru finkatu gabea	Jard. Ekon.	4.002.852	5.169.354	-1.166.502
Klubaren ondasunak, guztira			47.048.786	35.757.465	11.291.321

Hau da, antzematen da tasazio pribatuaren aldeko balorazio-alde garbi bat badagoela foru legean sartutako ondasunetan, 12,46 milioi ingurukoa; haren ondasun-zerrendatik kanpo dagoen orubea kontuan hartuta, alde hori 11,29 milioikoa da.

Antzemandako alde horiek heldu dira, funtsean, tasazioan metodo edo irizpide desberdinak erabili izatetik. Hona:

a) Sadar futbol-zelaia Tasazio pribatuak futbol-zelai baten birjartzearen edo birkokatzearen balioaren irizpidea aplikatzen du; horretarako, lurzoruari etxebizitza babestuen ondorenaren gehieneko balioa aplikatzen zaio, eta eraikuntzari, berriz, ikusle bakoitzeko eraikuntza-kostu batez bestekoa, zeina lortu baita eraiki berri diren bost futbol-zelaien eraikuntza-datuetatik, antzinatasunarekin zuzenduta. Ogasunaren txostenean, lurzoruaren balioa Estatistika Institutu Nazionalaren koefizienteen arabera kalkulatu da, eta eraikuntzarena, berriz, antzinatasun-koefiziente batek zuzenduta, balio historikoa dela eta.

Metro koadroei dagokienez, txosten pribatua eraikitako metro koadroei aplikatzen zaie; Ogasunaren txostena, berriz, lur-zatiaren m²-en guztizko kopuruaren gainean (lurzorua gehi eraikuntza).

b) Iturramako pisuak. Txosten pribatuak aplikatzen du antzeko higiezinaren salmentak alderatzean oinarritutako metodoa, m² erabilgarrien arabera. Ogasunaren txostenak, berriz, m² eraikien gaineko zenbatespen-metodo estatistikoa aplikatzen du; metodo horrekin, pisuen balioa kalkulatu da haien kokapenaren, antzinatasunaren, altueraren, egoeraren eta azaleraren arabera, merkatuko koefiziente zuzentzaile batek zuzenduta.

c) Iruñeko U.I. XXIII SO-1 lurzorua. Pribatuak m² erregistratuen gaineko hondarreko balio dinamikoaren metodoa aplikatzen du; hau da, etxebizitza babestuko sustapen baten salmentaren gehieneko balioa ken hirigintza- eta eraikuntza-kudeaketaren kostuak. Ogasunaren txostenak, daukan landa balioa dela eta, antzeko finken balioa aplikatzen du m²-en gainean, katastroari jarraituz.

d) Taxoareko instalazioak Tasazio-enpresa pribatuak proiektuko m²-ak birjartzeko metodoa erabiltzen du; hau da, etxebizitza babestuko balizko sustapen baten ondorenaren gehieneko balioa gehi instalazioak eraikitzearen kostua. Ogasunaren txostenak katastro-balioa –eraikuntzarik ez baitago– aplikatzen du jarduketa-esparruko m²-en gainean, lur-zatiaren atal baterako; eraikitako atalerako, aldiz, lurzoruaren balioa aplikatzen du, Estatistikako Institutu Nazionalaren koefi-

zienteei jarraituz, eta eraikinei dagokienez, berriz, daukaten balio historikoa, antzinasun koefiziente batek zuzenduta.

e) Taxoareko etorkizuneko enpresa-parkeko orubea Txosten pribatuak erregistroko m²-en gainean aplikatzen du lokalen eta garajeen balizko sustapen baten salmentaren balioa, eta hirigintza- eta eraikuntza-kudeaketaren gastuak kentzen dizkio. Ogasunak, katastroko m²-en gainean, higiezin-produktuaren merkatu-balioa, onartutako erabileretarako, ken haren exekuzio materialaren kostuak.

f) Iruñeko UM-3 P1 orubea (26/2014 Foru Legean sartu ez zena). Enpresa pribatuak aplikatzen du, erregistroaren arabera m²-etarako, etxebizitza babestuko sustapen batek lurzoruen daukan ondorena. Ogasunak, katastroaren arabera m²-en gainean, onartutako erabileren multzoaren batez besteko ondorenenaren balioa.

Horrenbestez, antzemandako aldeak honako hauetan oinarritzen dira: tasazio-txosten pribatua merkatu-irizpideetan oinarritzen da, bai eta, lurzoruen balorazioari begira, etxebizitza babestuko balizko sustapen baten balioa, alde batera utzita zein den hirigintza-araudian baloratutako unitateetarako aurreikusitako erabilera bereizgarria. Nafarroako Zerga Ogasunaren txostenean, ondasun horiek zerga-xedeei begira baloratzen dira soilik.

Gure iritziz, nahiz eta Nafarroako Gobernuak 26/2014 Foru Legean agindutakoaren arabera jokatu duen, azken horrek, arlo honetan araupetze eskasa dauka.

21.a Zanak

Aipatu bezala, aurreko balorazioek ez zituzten kontuan hartzen higiezin horiek izan ditzaketen zanak; esate baterako, hipotekak, prebentziozko idatz-oharrak edo bahiturazko idatz-ohar exekutiboak.

Bestalde, 26/2014 Foru Legeak ez du aipatzen ondasunek zanak dituzten ala ez, ez eta zama horiek zenbatespen ekonomikoan izan lezaketen eragina ere.

Aztertutako erregistro-informazioaren arabera, aipatutako ondasunek honako zama hauek daukate:

- Sadar futbol-zelaia

a) Guztizkoaren gaineko hipoteka, Foru Komunitatearen aldekoa. Printzipala 7.005.826 eurokoa da. 2003ko maiatzean eratu zen, eta 2020ko maiatzean du mugaeguna.

b) Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko bahiturazko idatz-ohar exekutiboa. Printzipala 8.924.540 eurokoa da, eta 2010eko azaroan eskrituratu zen.

c) Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko bahiturazko idatz-ohar exekutiboa. Printzipala 1.369.240 eurokoa da, eta 2011ko ekainean inskribatu zen.

d) Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko bahiturazko idatz-ohar exekutiboa. Printzipala 7.184.797 eurokoa da, eta prozedura 2012ko abendukoa da.

e) Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko bahiturazko idatz-ohar exekutiboa. Printzipala 1.104.419 eurokoa da, eta prozedura 2012ko abendukoa da.

- Taxoareko instalazioak

a) Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko hipoteka bat, 2005ean inskribatua, 9.573.460 euroko printzipala itzultzearen berme gisa. Eskuzko idatz-oharra: "ondarearen abal-bermea".

b) A letraren bahiturazko idatz-ohar prebentiboa, 2010eko irailekoa, Nafarroako Foru Komunitatearen aldekoa, printzipaleko 8.924.542 euro erreklamatzekoa, Nafarroako Zerga Ogasunaren Prozedura Berezien Ataleko prozeduran.

c) B letraren bahiturazko idatz-ohar prebentiboa, 2011ko uztailakoa, Nafarroako Foru Komunitatearen aldekoa, printzipaleko 1.369.240 euro erreklamatzekoa, Nafarroako Zerga Ogasunaren Prozedura Berezien Ataleko prozeduran.

d) C letraren bahiturazko idatz-ohar prebentiboa, 2013ko otsailekoa, Nafarroako Foru Komunitatearen aldekoa, printzipaleko 12.071.288 euro bermatzekoa, Nafarroako Zerga Ogasunaren Prozedura Berezien Ataleko prozeduran.

e) D letraren bahiturazko idatz-ohar prebentiboa, 2013ko otsailekoa, Nafarroako Foru Komunitatearen aldekoa, printzipaleko 1.104.419 euro erreklamatzekoa, Nafarroako Gobernuako Diru-bilketa Exekutiboaren Atalak 2013ko abenduan agindua.

f) Bahitura exekutiboa, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren aldekoa, 375.982 euroko zenbateko bati erantzutekoa (printzipala gehi interesak, kostuak eta erreargua), 2014ko ekainean inskribatua. Bahitura 2014ko urrian altxatu zen, zorra⁸ ordaindu zelako, eta inskribatzeko dago.

- Taxoareko enpresa-parkeko orubea.

a) Nafarroako Aurrezki Kutxaren –gaur egun, CaixaBank– aldeko hipoteka bat, 2009ko apirilean inskribatua, printzipaleko 8.600.000 euroko mailegu baten berme gisa.

b) Bahitura exekutiboa, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren aldekoa, 376.982 euroko zenbateko bati erantzutekoa (printzipala gehi interesak, kostuak eta erreargua), 2014ko ekainean inskribatua. Bahitura 2014ko urrian altxatu zen, zorra⁹ ordaindu zelako, eta inskribatzeko dago.

- Iruñeko U.I. XXIII SO-1 lurzorua

a) Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko hipoteka bat, 634.602 euroko printzipala duena, 2013ko maiatzean eskrituratua eta 2012ko maiatzean mugaeguna duena. Eskuz idatzita honako hau ageri da: “ondarearen abal-bermea”.

b) Bahitura exekutiboa, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren aldekoa, 375.982 euroko zenbateko bati erantzutekoa (printzipala gehi interesak, kostuak eta erreargua), 2014ko ekainean inskribatua. Bahitura 2014ko urrian altxatu zen, zorra¹⁰ ordaindu zelako, eta inskribatzeko dago.

- Iruñeko UM-3 P1 orubea (25/2014 Foru Legeko II. eranskinean ez zegoen jasota)

a) Banaketa-arloko hirigintza-zamen ehuneko 59,886 behin-behineko likidazio-kontuaren saldoaren zama zeukan, 3.057.211 eurokoa hain zuzen, eta 199.230 euro, berriz, hirigintza-kudeaketako gastuengatik. Zortasun bat badago.

a) Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko hipoteka bat, 4.665.343,14 euroko kapital printzipala duena. 2014ko otsailean eskrituratu zen, eta 2013ko abenduko hasiera-data eta 2018ko abenduko mugaeguna dauzka. Hipoteka horrek 2013ko urrian onetsitako geroratzea bermatzen du.

c) Bahitura exekutiboa, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren aldekoa, 375.982 euroko zenbateko bati erantzutekoa (printzipala gehi interesak, kostuak eta erreargua), 2014ko ekainean inskribatua. Bahitura 2014ko urrian altxatu zen, zorra¹¹ ordaindu zelako, eta inskribatzeko dago.

Gainera, Iturramako pisuak errentan emanda zeuden, 2010eko uztailaren 1ean sinatutako kontratu baten bitartez. Errentatzeak lau urteko iraupena dauka; beraz, mugaegunera iritsita dago. Gaur egun, balorazio-txosten pribatuak aipatzen duen bezala, ikasleei errentan emanda daude, baina ez da aurkeztu edo aipatu harreman hori arautzen duen errentamendu-kontraturik. Halaber, jasota dago Sadar futbol-zelaiko instalazioen zati bat ostalaritza zerbitzuetarako errentan emanda daudela.

⁸ Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren 2014ko urriaren 3ko jakinarazpenaren arabera.

⁹ Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren 2014ko urriaren 3ko jakinarazpenaren arabera.

¹⁰ Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren 2014ko urriaren 3ko jakinarazpenaren arabera.

¹¹ Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren 2014ko urriaren 3ko jakinarazpenaren arabera.

Azken batean, ikus daitekeen bezala, emandako ondasun ia guztiek Foru Komunitatearen Administrazioaren aldeko zamak bazeuzkaten. Horrenbestez, jarduketa hauekin Ogasun Publikoa bermatzen ari zen klubaren zerga-betebeharrak betetzen ari zirela.

Bestalde, Gobernuaren akordioan, zeinaren bitartez onartzen baita klubak aurkeztutako balorazioa, berariaz aipatzen da tasazio-balioetik kendu egin behar direla emandako ondasunen hipoteka-zamak (ikus 22. ondorioak).

IV.3.3. Klubaren zerga-zorren diferentzialari buruzko kalkulua

22.a Klubak eskuratutako ondasunen balio garbia

Nafarroako Gobernuak, 2015eko apirilaren 29ko saioan, erabaki zuen onartzea klubak entregatu beharreko ondasunei buruz enpresa pribatuak aurkeztutako tasazio-balioa, 26/2014 Foru Legeko II. eranskinean zehazten den bezala. Eranskin horretan ez zegoenez UM-3 P1 orubea, azken hori ez da sartu Foru Komunitateari entregatu beharreko ondasunen zerrendan.

Erabaki horren babesgarri, Nafarroako Zerga Ogasunak eta Aurrekontuaren Zuzendaritza Nagusiak batera egindako aldez aurretiko txostena dago. Horretan, Gobernuaren erabakiak kontuan hartu beharreko baldintza batzuk aipatzen dira.

Erabaki horretan, halaber, jasotzen da higiezin bakoitzerako lortutako tasazio-balio hori jaitsi egin beharra dagoela, honako kenduz: "klubak hirugarrenekin hartutako betebeharretatik – betebeharrak horiek behar diren erregistro-inskripzioekin bermatuta– ordaintzeko dagoen saldoa".

Horrenbestez, tasazio-balio horretatik –43,05 milioi; ikus 18. ondorioa– klubak bankuentitateekin hartuta dauzkan maileguetatik ordaintzeko dagoen kopurua kentzen da, baldin eta haiek bermatuta badaude aipatutako ondasun tasatuekin, eta, kasua bada, Nafarroako Gobernuak abalatuak. Kluba zama horiek ordaintzen doan neurrian, kasuko zerga-zamaren gutxitzea aplikatuko da.

Hartara, laburbilduz, honako zenbateko hauek gutxituko dira:

Finantza-entitatea	Ondasun hipotekatuenak	Ordaintzeko dagoen kopurua	Maileguaren mugaeguna
CaixaBank	Taxoareko enpresa-parkeko hipoteka	3.662.831	2018ko martxoa
B. Popular	Ondasunen hipoteka/18 milioiko abala	1.803.077	2020ko maiatza ⁽¹⁾
Bankinter	Ondasunen hipoteka/18 milioiko abala	1.803.077	2020ko maiatza ⁽¹⁾
CaixaBank	Ondasunen hipoteka/18 milioiko abala	3.606.155	2020ko maiatza ⁽¹⁾
Ondasunen gutxitzea, guztira		10.875.140	

⁽¹⁾ Mugaegun hori 2030eko urtarilera arte luzatu da, kontratu horiek berritzearen ondorioz (ikus 27. ondorioa).

Horrenbestez, klubak Foru Komunitateari ordainketan emate gisa eskuratutako ondasunen balio garbia 32,17 milioikoa da. Hona xehetasunak:

Emandako ondasunen balio garbia	Zenbatekoa
Ondasunen balioa, tasazioaren arabera	43.045.934
Hipoteka-zamak	-10.875.140
Ordainketan emandako ondasunen balio garbia, guztira	32.170.794

26/2014 Foru Legean adierazitakoari jarraituz, behin tasazioaren zenbatekoa onartuta, hilabeteke epea dago ondasun horien transmisioa eskritura publikoan jasotzeko.

Halaber, Nafarroako Gobernuaren aipatutako erabakiak aipatzen du ezen, ordainketaren ematea inskribatzeko unean Jabetzaren Erregistroan zergapetze edo zama ezezagunen bat aurkitzen bada, haren zenbatekoak tasazio-balioa gutxituko duela, eta, horrenbestez, berriz egingen dela zerga-zorren diferentziari buruzko kalkulua.

2015eko ekainaren 16an, notarioaren aurrean sinatu da Nafarroako Gobernuari aipatutako ondasunak entregatzea.

23.a Zerga-zorren diferentziari buruzko kalkulua.

Zerga-zorren zenbatekoa –52,82 milioi– abiapuntutzat hartuta eta klubak entregatutako ondasunen balio garbia –32,17 milioi– kenduta, zor horren diferentziala 20,65 milioikoa da. Horixe erator daiteke honako taula honetatik:

Zerga-zorren diferentziala.	Tasazio pribatuaren zenbatekoa
Zerga-zorra, guztira	52.820.880
- Ordainketan entregatutako ondasunen balio garbia	-32.170.794
Zerga-zorren diferentziala, guztira	20.650.086

Zerga-zorren diferentzial horren gainean aplikatuko da, kobratua izan dadin, 26/2014 Foru Legeak jasotako geroratzea.

IV.3.4. Zerga-zorren diferentzialaren geroratzea**24.a Zerga-zorren diferentzialaren geroratzea formalizatzea**

Behin zerga-zorren diferentziala finkatuta, Nafarroako Gobernuak, 2015eko apirilaren 29ko bilkuran, baimena eman zuen, 26/2014 Foru Legearen baldintzei jarraituz, haren geroratze bat baimentzeko, honako ezaugarri hauekin:

- Haren prozedura 26/2014 Foru Legeak berak arautu zuen, eta ez zen, horrenbestez, aplikatu Nafarroako Zerga Ogasunak ezarritako prozedura orokorra.

- Geroratutako zenbatekoa: 20,65 milioi.

- Geroratzearen epea: gehienez ere 30 urte, 2015eko urtarrilaren 1etik kontatzen hasita, eta lehenengo hiru urteetan interesik gabeko gabealdia dagoela. Gabealdi hori eraginik gabe geratuko da baldin eta kluba Lehen Dibisiora igotzen bada, eta igotzen den egunetik bertatik; mailaz igotzearen aurreikuspen hori ez dago jasota Nafarroako Gobernuaren aipatutako erabakian.

- Haren ordainketari atxikitako diru-sarrerak, gabealdia amaituta: Ikus-entzunezko eskubideen ehuneko 25; jokalarien traspasoei dagozkien eskubideen ehuneko 25 (federazio-eskubideak eta eskubide ekonomikoak) eta Nafarroako Gobernutik babesletza-kontratuak tarteko jasotako zenbatekoen ehuneko 100 –azken kasu horretan, gabealdirik ez dago–. 2015eko uztailaren 3an, aurreko ikus-entzunezkoen eta traspasoen eskubideak lagatzeko eskriturak sinatu ziren¹².

- Klubak jakinarazi beharko die, gabealdi-epea amaituta, telebista-eskubideen arduradunei eta Futbol Liga Profesionalari aurreko portzentajeak Nafarroako Zerga Ogasunari laga zaizkiola. Komunikazio hori Nafarroako Zerga Ogasunean egiaztatu beharko da.

- Geroratze horrek, gure iritziz, ordainketarako sistema eta erritmo bikoitza dauzka:

a) 2014ko abenduaren 31n 10,88 milioi egiten duten ondasunen gaineko hipoteka-zorra. Gobernuari entregatutako ondasunen gaineko mailegu hipotekarioak Klubak ordaintzen doan neurrian, kasuko zerga-zorra gutxitzen joanen da behar diren doikuntzak eginez. Horren ordainetan, ondasunak balio handiagoa izanen du, hipoteka-zamaren kasuko zatia kendu zaiolako. Hipoteka horietatik batek 2018ko martxoan du mugaeguna, eta gainerako hirurek 2030eko urtarilean.

b) Geroratutako zergaren gainerakoa –9,77 milioi–: atxikitako diru-sarrerak sortzen doazen neurrian.

- Geroratze-interesaren tasa: Ez 26/2014 Foru Legean, ez Nafarroako Gobernuaren erabakian geroratzeari aplikatu beharreko interes-tasa aipatzen ez bada ere, testu horiek irakurrita ondokoa ondoriozta daiteke¹³:

a) 9,77milioiko zorrari dagokionez, arlo honetako tratamendua Diru-bilketa Erregelamenduak ezarriko du.

¹² Nafarroako Zerga Ogasunak aurkeztutako alegazio batekin aldatutako lerrokada.

¹³ Nafarroako Zerga Ogasunak aurkeztutako alegazio batekin sartutako lerrokadak.

b) Aipatutako mailegu hipotekarioetan jasandako gainerako zorrari dagokionez, Nafarroako Zerga ogasunaren iritziz, baldin eta klubak finantza-entitateei ordaintzeko konpromisoak betetzen baditu, zor den printzipalaren zenbatekoa azkendu egingen da Nafarroako Gobernuaren erabakian aipatutako terminoetan, eta azkendu egingen da, halaber, berandutza-interesak berarekin ekarriko lukeen prestazio gehigarria. Klubak ordainketak betetzen ez baditu, zor den printzipala exijitu egingen da aurreikusitako diru-bilketa prozeduren bitartez, Nafarroako Gobernuaren aipatutako erabakian jasotako moratoriaren mugaegunetik sortutako berandutza-interesekin batera.

- Klubak egindako ordainketetatik bakoitzak berarekin ekarriko du, kasua bada, geroratzearen berandutza-interesak birkalkulatzeara.

Gure iritziz, 26/2014 Foru Legeak geroratze horri buruz jasotako erregulazioa askieza izan liteke Nafarroako Gobernuaren balizko arriskua estaltzeko; hori dela eta, hirugarrenen aurreko kontingentzia ekonomikoak eragin litezke, baldin eta klubak ez baditu bere ordainketa-betebeharrak betetzen. Hartara:

- La Caixaren maileguak -3,66 milioi- Taxoareko instalazioen gaineko hipoteka baten bermea dauka; gainerako 7,21 milioiak Nafarroako Gobernuaren abal batekin daude bermatuta finantza-entitateen aurrean. Abal hori, aldi berean, ondasun batzuen gaineko kontra-bermea izan zen Nafarroako Gobernuarentzat¹⁴.

- Atxikitako diru-sarreraren bitartezko ordainketa-prozedurari dagokionez, ez dago jasota hala-korik ez egoteko edo diru-sarrera horiek egiazki ez gertatzeko kasurik, ez eta horrek nolako eragina izanen lukeen geroratutako zorrean.

IV.3.5. Ondasun batzuen erabilera klubari errentan emateko eta lagatzeko kontratuak

25.a Ondasunen erabilera klubari errentan emateko eta lagatzeko kontratuak

26/2014 Foru Legeko 3. artikuluan ezarritakoari jarraituz, honako hau baimentzen da:

- Taxoareko kirol-instalazioen errentamendua eta Sadar futbol-zelaia klubari lagatzea.
- Indarraldia: 30 urte.
- Zenbatekoa: Errentan emandako finken urteko errenta 75.000 eurokoa izanen da, 2. mailan jarraitzen badu, edo 150.000 eurokoa, 1. mailara igotzen bada. Errenta hori urtero eguneratuko da, Hiri Errentamenduen Legearen arabera.
- Osasunak bere gain hartuko ditu mantentze- eta kontserbatze-gastuak, bai eta aipatutako finken erabileratik heldu direnak ere.

Halaber, Nafarroako Gobernuak eskubide lehenetsia izanen du eskualdatutako finketan kirol, hezkuntza nahiz kultur jarduerak sustatzeko, Osasunarekin adostuta.

2015eko ekainaren 16an, Aurrekontuaren zuzendari nagusiaren ebazpen batzuen bitartez, onetsi egin zen klubaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko erabilera-lagapena eta errentamendua. Errentamendu kontratua egun hartan bertan sinatu zen.

Foru Lega mugatzen da esatera ezen klubaren kargurako izanen direla errentamenduan eta erabileran lagatutako ondasunen mantentze- eta kontserbazio-gastuak; hala eta guztiz ere, ez da inongo aipamenik jasotzen haiek behar litzaketan inbertsio-gastuak finantzatzeara nori dagokion esaten duenik. Hala eta guztiz ere, lagapenari buruzko aipatutako ebazpenean eta errentamendu-kontratuan klausula bat jasotzen da, non esaten baita klubak bere bizkar egingen dituela futbol-zelaia eta instalazioak indarreko araudiari eta organo eskudunek ezarritakoari egokitzeko behar diren obrak, bai eta komenigarritzat jotzen dituen gainerako guztiak ere. Obra horiek jabetzaren onurarako geratuko dira lagapena eta errentamendua azkentzen direnean, inongo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

¹⁴ Nafarroako Zerga Ogasunak aurkeztutako alegazio batekin aldatutako lerrokada

IV.4. ABALAK EMATEA, 26/2014 FORU LEGEAK AIPATZEN DITUEN GAINERAKO BALDINTZAK BETETZEA ETA HARI BURUZKO BESTE GOGOETA BATZUK.

IV.4.1. Abalak

26.a Lau milioiko abala ematea

Nafarroako Gobernuaren 2015eko urtarrilaren 14ko erabakiz, klubari 26/2014 Foru Legeko 8. artikuluan aurreikusitako abala eman zitzaion. Honako hauek dira haren ezaugarriak:

- Abalaren zenbatekoa: lau milioi.
- Indarraldiaren gehieneko epea: 15 urte.
- Xedea: Bere jarduerak finantzatzeko klubak behar litzakeen kreditu- edo mailegu-eragiketak bermatzea. Horri dagokionez, klubak bina milioiko bi mailegu lortu ditu; horietako bat bi finantza-entitatek emana, eta 15 urteko indarraldiarekin.
- Abalak ez du inolako komisorik sortuko Foru Komunitatearen alde.
- Emateko baldintzak: otsailaren 14ko 1/2003 Foru Legean ezarritakoak; haren bidez, izan ere, Osasunari gehienez ere 18 milioiko abal bat ematea onetsi zen. Foru lege horrek, aldi berean, otsailaren 16ko 49/1989 Foru Dekretura igortzen du; horren bidez, Nafarroako Foru Komunitatean abalak emateko prozedura eta haien gainean eratu beharreko bermeak ezartzen dira.

Erabaki hori jakinarazten zaio, besteak beste, Europako Batzordeko Lehiaren Zuzendaritza Nagusiari.

Nafarroako Gobernuaren erabaki hori hartu zen, Kontu-hartzailetza Nagusiaren 2015eko urtarrilaren 20ko txostenaren arabera, fiskalizaziorik egin gabe. Hartara, aipatutako Kontu-hartzailetzak txosten bat egin zuen, non, besteak beste, aipatzen baitu abal hori estatu-laguntzat har litekeela eta horrek arriskuak ekar litzakeela.

27.a Foru Komunitatea abal-emailea deneko kreditu-polizen berritzea.

Nafarroako Gobernuaren 2015eko urtarrilaren 28ko erabakiaz, baimena eman zen klubak formalizatutako hiru kreditu-polizen berritze aldatzailea egiteko. Poliza horietan Foru Komunitatea abal-emailea da. Berritze hori berariaz jasota dago 26/2014 Foru Legean.

Aurreko polizak 1/2003 Foru Legearen bitartez 18 milioiko abal bat emateari dagozkio. Eragiketaren horrekin, Gobernuak kluba abalatu egin zuen hiru finantza-entitaterekin aurrean, beste hainbeste mailegu hartzeko, hain zuzen ere zorrak likidatzekoak, 2002ko ekainaren 30ean auditatutako balantzearen arabera. 17 urteko gehieneko iraupena zuen –2020ra arte–, eta klubak higieziaren hipoteka bat egin zuen Foru Komunitatearen alde, ondoko ondasunen gainean, 17,21 milioiko printzipala egiten duen guztizko zenbatekoarekin:

- Sadar futbol-zelaia: Foru Komunitatearen aldeko zazpi milioiko hipoteka.
- Taxoareko kirol instalazioak: 9,57 milioi.
- Sadar parajeko lur-zatia (Iruñeko U.I. XXIII SO-1 lurzorua): 0,63 milioi.

2014ko abenduaren 31n, klubak aurreko kredituak zor zituen: 7,21 milioi egiten dute guztira.

Gobernuaren erabaki horrek baimentzen duena da, funtsean, aipatutako 18 milioiko abalaren bermeak zabaltzea lau milioiko abalera. Horretarako, baimena ematen da kreditu-polizak berrietzeko; haren indarraldia 15 urteko gehieneko epe baterako finkatzen da, formalizaziotik berritzera –2030ko urtarrilaren 23ra arte; interes-tasaren gaineko diferentziala aldatzen da –3,25 puntutan finkatzen da, biribiltzerik gabe–; bi urteko gabealdia sartzen da; eta Ondare Zerbitzuari eta klubari agintzen zaie behar diren jarduketak egin ditzaten 18 milioiko abalaren berme gisa emandako hipotekaren eskritura publikoa aldatzeko, berme hori zabal dadin lau milioiko abal berrira.

28.a Foru Komunitatearentzako arriskua, abal horietatik heldutakoa

Nafarroako Gobernuak igorritako dokumentazioan, halaber, 2015eko otsailaren 6ko txosten bat ageri da, Laguntza Teknikoaren, Sozietate Publikoen eta Abalen Bulegoko buruak sinatua eta Ondarearen Kudeaketa Juridikorako Ataleko buruaren, Ondare Zerbitzuko zuzendariaren eta Aurrekontuaren zuzendari nagusiaren adostasunarekin. Hartan, laburbilduz, honako gogoetak egiten dira, finkatze aldera nolako arriskua duten Foru Komunitaterako bai lau milioiko abalek, bai 18 milioiko abalean oinarritutako maileguen berritzeak:

- Ondare Zerbitzuak ezin izan du eskuratu klubaren Bideragarritasun Plana. Diruzaintza-plan bat baizik ez du ezagutzen, 2014-2018 urteetarakoa; dokumentu hori, ordea, ez da nahikoa arrisku horiek baloratzeko.

- 26/2014 Foru Legean aurreikusitako ondasunen ordainketan ematearekin, desagertu egingen dira abal hauen egungo hipoteka-bermeak. Bestalde, ez Nafarroako Gobernuaren aurreko erabakietan, ez eta Foru Legean bertan ez da aurreikusi ondasunen ordainketan ematean jaso ez den klubaren jabetzako finka bakarraren onarpena, klubak berme gehigarri gisa 2014ko abenduan eskainitakoa.

- Horrenbestez, ezarritako baldintzak ez urratzeko, beharrezkoa izanen da ezen, ordainketak emateari ekin aurretik, egungo bermeen orde bestek batzuk jar daitezela, abalek egun duten arrisku biziaren pareko balioa dutenak. Horretarako, ulertzen da beharrezkoa litzatekeela klubari exijitzea 26/2014 Foru Legean jaso ez den finkaren gaineko berme hipotekarioa jar dezan –lau milioitan tasatuta dago–, bai eta baloratzeko nolako aukera dagoen ordainketan ematek kanpo uzteko abalen egungo arrisku biziaren pareko balioa duten ondasunak, edo aukerako beste edozein formula artikulatzea, zeinak, ondasunak ordainketan ematearen ondoren ere, aukera emanen baitu abalatarako behar besteko bermeari eusteko.

- Berretsi beharra dago ezen fidantzapeko betebeharrak ez ordaintzeko arrisku handia dela eta, beharrezkoa dela kasuko probisioa egitea, Kontu-hartzailetza Nagusiaren irizpideei jarraituz, bai eta aztertzea ere nolako eragina duten abal horiek aurrekontu-egonkortasunaren esparruan.

Gehitzeko gelditzen zaigun bakarra da aipatutako finkak jada Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko hipoteka duela, 4.665.343,14 euroko kapital printzipala duena. 2014ko otsailean eskrituratu zen, eta 2013ko abenduko hasiera-data eta 2018ko abenduko mugaeguna dauzka. Hala eta guztiz ere, 26/2014 Foru Legearen beraren 6. artikulua aplikatuta, hipoteka hori liberaturik dago¹⁵.

29.a Jasotako berme berriak

Gobernuaren 2015eko apirilaren 29ko erabakian, zeinaren bidez klubaren zerga-zorren azkentze partzialari ekin baitzitzaion (ikus 22. ondorioa), 6. puntuan ezarri zen onartu egiten dela klubak finkaren gainean Foru Komunitatearen aldeko hipoteka bat egiteko eskaintza –lau milioitan tasatuta dago–, lau milioiko abalaren berme gisa, eta honakoa ere gehitzen da: "baldin eta berme hori nahikoa ez bada, klubak bere etorkizuneko ondasunekin erantzun beharko dio Nafarroako Foru Komunitateak bermatutako betebeharraren betetzeari".

Horrenbestez, abal horiek, 11,21 milioi euroko saldo bizia dutenak, bermatuta daude finkaren gaineko aurreko hipotekarekin –lau milioitan baloratuta dago finka–, lehenengo abalaren saldo biziari dagozkion eta ordainketan emandako ondasunen zati batekin eta klubak etorkizunean lor ditzakeen ondasunekin. Gure iritziz, gerta liteke berme horiek aski ez izatea, are gehiago klubaren egoera ekonomikoa kontuan hartuta; horrenbestez, Nafarroako Gobernuari gorabehera ekonomikoak eragin lekeizkioke, baldin eta klubak ordaintzeko betebeharrak beteko ez balitu. Gainera, gaur egun, eta eskura daukagun informazioaren arabera, klubak ez du jada aipatutakoez beste ondasun higiezinik.

¹⁵ Nafarroako Zerga Ogasunak aurkeztutako alegazio batekin aldatutako lerrokada.

IV.4.2. 26/2014 Foru Legean ezarritako gainerako baldintzen betetzea.**30.a Kontrol Ekonomikorako Batzordea**

26/2014 Foru Legeak jasotzen du klubaren estatutuak alda daitezkeela kontrol ekonomikorako batzorde bat eratzeke, non Foru Administrazioaren ordezkari bat egonen baita "egiaztatze aldera klubaren kaudimena nahiz foru lege honetan ezarritako betebeharrak betetzen direla –hartara, egoki irizitako dokumentu guztiak egiaztatu ahalko ditu–, harik eta zerga-zorra osorik ordaindu eta abalak iraungi arte".

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak –instituto hori baita Nafarroako Kirol Entitateen Erregistroaren ardura duena–, 2015eko martxoan, ebazpen bat eman zuen, non onesten baita klubaren estatutu sozialetako zenbait artikuluren aldaketa inskribatzea; artikulua horietan, besteak beste, Informaziorako eta Kudeaketa Gardenerako Organoa edo Kontrol Ekonomikorako Batzordea sortzen dira, eta aipatzen da Foru Komunitateak izendatutako ordezkari bat haietako kidea izanen dela, **hizpidearekin baina botorik gabe**.

Ordezkari horrek –batzorde horretako kidea izatea lotuta dago 26/2014 Foru Legeko baldintzak indarrean egotearekin– bere eginkizunen artean edukiko du, funtsean, "klubak egiten dituen edo kluba inplikaturik dagoen edo partaide izan den egitate, kontratu eta, oro har, eragiketa ekonomiko, finantzario, fiskal eta administratiboak aztertu, analizatu, ikuskatu eta ebaluatzea. Jarraipen hori etengabekoa izanen da".

Aipatutako estatutuei jarraituz, batzorde horrek ez du izanen eginkizun exekutiborik, hertsatzailearik edo zehatzailerik.

Txosten hau idazteko garaian, ez dago jasota Foru Komunitatearen ordezkaria formalki izendatuta dagoenik.

31.a Beste baldintza batzuk

26/2014 Foru Legeko xedapen gehigarri bakarrari jarraituz, honako beste baldintza hauek ere ezarri ziren:

- Nafarroako Gobernuak kluba premiatuko du –eta harekin adostuko du– azken horrek kanpoko auditoria bat enkarga dezan 2005etik 2014ra bitarteko ekitaldiei buruzkoa. Auditoria hori Nafarroako Parlamentura igorriko da.

- Klubak bideragarritasunari buruzko planak Gobernuari aurkeztuko dizkio, bai eta haren nor-tasun edo egoera juridikoari buruzko balizko aldaketak ere, eta Gobernuak, gero, Nafarroako Parlamentuari igorriko dizkio.

Nafarroako Gobernuaren 2014ko abenduaren 17ko erabakiaz, kluba premiatu zen auditoria hori enkarga zezan eta bideragarritasun planak aurkez zitzan. Halaber, ahalmena eman zitzaion Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariari adostu ditzan, batetik, kanpoko auditoria enkargatzeko eta aipatutako bideragarritasun planen bidalketarako baldintza orokorrak, eta, bestetik, klubarekiko akordioak gauzatu ahal izatea bideratuko duten Departamentuko funtzionarioen izendapena.

Txosten hau idazteko garaian, jasota dago ezen, klubak, 2015eko apirilaren 23an igorritako idazkiaren bitartez, 2015eko otsaileko dokumentu bat aurkeztu duela, non aipatutako auditoria egiteko aurrekontua eskatzen baitzien profesionalen bost enpresari. Ez dakigu gaur egun auditoria hori zein egoeratan dagoen.

Bideragarritasun planei dagokienez, Nafarroako Zerga Ogasunak ganbera honi lau dokumentu aurkeztu zizkion, 2014/15, 2015/16, 2016/17 eta 2017/18 denboraldietako diruzaintza-planei buruzkoak. Dokumentu horiek Batzorde Kudeatzaileak entregatu zituen, 27/2014 Foru Legea onetsi aurretik. 2015eko urtarrilean klubak dokumentazio hori bera berriz igorri zuen.

Dokumentu horiek lau denboraldi horietarako kobrantzen eta ordainketen aurreikuspen hutsak dira, baina ezin da ulertu haiek egiazko bideragarritasun plan bat direnik, zeren eta ez baitituzte lantzen halako planetan funtsezkoak diren alderdi batzuk: berregituratu beharreko enpresa-proiektua; giza baliabideei eta baliabide teknikoei buruzko eragiketa-plana; marketin-plana; plan

finantzarioa edo errentagarritasun finantzario, ekonomiko eta ondarezkoari buruzko analisia; inbertsioak eta haien finantzaketa; egoera fiskala, eta abar.

IV.4.3. 26/2014 Foru Legeari buruzko beste gogoeta batzuk

32.a Foru Legeari buruzko beste gogoeta batzuk

Ganbera honen iritziz, aipatutako foru legeak zenbait zehaztasun falta dauzka, txostenaren enborrean zehar jada aipatutakoez gainera, ez baitu honako kasuistika hau jasotzen:

- Ez du igortzen, gutxienez ere legedi osagarri gisa, Nafarroako zergei buruzko araudi orokorrera, eta, bereziki, Diru-bilketa Erregelamendura, prozedura dela-eta izan daitezkeen gorabeheri konponbidea emateko.

- Ez du inongo aurreikuspenik edo eraginik jasotzen klubari ezartzen zaizkion baldintzak betetzen ez direneko kasurako.

- Ez du, ezta ere, erreferentziarik jasotzen klubari exijitzekoa zaion konpromisoari buruz; hain zuzen ere, 2014ko abenduaren 31tik aurrera zerga-betebeharretan egunean egoteari buruz.

- Aurreikuspenetan ez da jasotzen Bigarren B dibisiora jaisteko aukera, edo haren sozietate-eraldaketa bat gertatzea, ez eta halakoek zein eragin izanen lituzketen Foru Ogasunari ordaindu beharrekoen ordainketan.

IV.5. KLUBAREN ALDEKO BESTE JARDUKETA BATZUK

33.a Nafarroako Gobernuak kobratzeko eskubideei uko egitea

26/2014 Foru Legea onetsi aurretik eta kluba Bigarren A dibisiora jaistearekin bat –2014ko maiatza–, Nafarroako Gobernuak, klubak eskatuta, 2014ko uztaillean erabaki zuen uko egitea dibisioz jaisten direnentzako laguntzen lehentasunezko kobrantza-eskubideari, horixe baitzego-kion Futbol Profesionalaren Liga Nazionalaren Erregelamendu Orokorraren arabera. Laguntza horiek 2,66 milioi garbikoak¹⁶ dira 2014/15 denboraldirako.

Futbol Profesionalaren Ligaren laguntzak klubari ematen zaizkio Bigarren A dibisioaren kategoriari eusten dion bitartean eta kirol plantillarekiko zorrik ez dagoen bitartean edo daudenak erregularizatuta daudenean. Halaber, exijitzen zaio hartzekodunekiko betebehar ekonomikoetan egunean egotea, eta horretan lehentasuna ematen zaie administrazio publikoekiko zorrei. Egunean ez badago, Ligak laguntza horiek hartzekodunei ordainduko dizkie zuzenean.

2014ko uztailaren amaieran, klubak kopuru batzuk zor zizkion plantillari, baina finantza-egoera ahula zela-eta, ezinezko gertatzen zitzaion haiak kitatzea. Horrenbestez, jokalariek salaketei eutsiz gero, kategoriako beheratze administratiboa beste aukerarik ez zegoen, eta, gainera, ez zuen ez Ligatik ez futbol profesionalarekin¹⁷ lotutako inongo erakundetatik inongo zenbatekorik eskuratuko kategoriaz behera egitearengatiko laguntza gisa.

Hori dela eta, klubak Nafarroako Zerga Ogasunari eskatu zion lehentasunezko eskubideari uko egin eta baimena eman ziezaion kategorია galtzearen ondoriozko laguntzen zenbatekoa guztiz jasotzeko, haiek jokalariekiko zorrak ordaintzera bideratze aldera.

Diru-bilketa Zerbitzuak txosten bat egin zuen 2014ko uztaillean, eta hartan aztertzen ditu bai klubaren egoera, bai uko egite horren izaera eta ondorioak ere. Honako ondorioak atera zituen: uko egite horrekin, klubak kirol-kategoriari eusten jarraituko dio; zenbatekoa ez da iristen esku-bide guztietara, baizik eta soilik kirol esparruko betekizunak betetzeko beharrezkoa dena; eta horrek aukera emanen du denbora irabazteko, Nafarroako Zerga Ogasunarekiko zorra modu orokorrean konpontzeko bide bat aztertu eta bilatzeko.

¹⁶ Behin klubak berak laguntzak emandako enteekin zeuzkan zorrak deskontatuta.

¹⁷ Futbol Profesionalaren Ligaren aipatutako laguntzaz gainera, G-35 izeneko klub-taldearen beste laguntza bat badago, guztira 9,11 milioi egiten duena eta 2014ko urritik 2016ko urtarrilera bitartean jasotzekoa dena.

Gobernuak onetsitako uko-egitea 2014/15 denboraldiko kopuruetara mugatzen da, eta justifikatzen da esanez bera ez emateak nolabaiteko arriskua zekarkiola klubaren bizi-iraupenari eta, horrenbeste, kaltetu egingen lituzkeela Ogasunarekiko daukan zorra kobratzeko itzaropenak. Uko-egite hori bermatu zen, notario bidezko lagapen baten bitartez, G-35etik 2015/2016 denboraldian jasotzekoak diren laguntzekin –baldin eta kategoriari eusten bazaio–, eta hiru milioi eurokoa da, gehi legezko interesak, edo kopuru hori estaltzerainoko ikus-entzunezko eskubideekin, baldin eta Lehen Dibisiora igotzen bada. Klubak jokalarien traspasoen bidez aparteko diru-sarrerarik lortzekotan, horiek Nafarroako Zerga Ogasunari eskuratuko zaizkio, uko-egitea konpentsatzeko, uko-egite horren mugaraino. Berme horiek eraginik geratu dira 26/2014 Foru Legeko 6. artikuluekin¹⁸.

¹⁸ Nafarroako Zerga Ogasunak aurkeztutako alegazio batekin aldatutako lerrokada.

V. AZKEN LABURPENA

Club Atlético Osasunaren finantza-egoerak okerrera egin du progresiboki azken urteetan. Egoeraren larritze hori areagotu da 2014ko maiatzean kategoria galtzearekin eta horrek ikus-entzunezko eskubideen kobrantzaren arloan dakarren galera nabarmenarekin.

Aurreko diru-sarrerez gainera, klubaren jardueren finantzaketa, funtsean, oinarritu da finantza-entitateen baliabideak hartzean eta Foru Ogasunarekiko zorrak ez ordaintzean edo/eta geroratzetan.

Finantza-entitateekin, klubak epe luzeko maileguak lortu ditu, ondasunak hipotekatuz, eta, batzuetan, Nafarroako Gobernuaren abalari esker. Hartara, jada 2003an, Gobernuaren abal bati esker, 18 milioi egiten duten mailegu hipotekarioak formalizatu zituen. Aldez aurreko baldintza gisa, Administrazioak betebeharrak fiskaletan egunean jartzeko exijitu zion. Aurrekoaren ondorioz, 2003ko maiatzean, klubak Zerga Ogasunarekiko zor osoa kitatu zuen.

Data horretatik aurrera, klubak behin eta berriz eta modu jarraituan urratu ditu bere betebeharrak fiskalak –bai aitopenak garaiz aurkeztekoak, bai ordainketakoak–, eta horrek berarekin ekarri du, besteak beste, behin eta berriz zorra geroratzeko/zatikatzeko eskatu behar izatea eta hori lortzea. Geroratzeko horietarako berme gisa, bere ondareko elementu nagusiak eskaini izan ditu behin eta berriz.

Gainera, geroratzeko horietakoren bati buruzko elkarrizketen hasiera bat etorri ohi da klubak bere betebeharrak fiskaletan egunean egoteko dokumentu edo ziurtagiri bat behar duen uneekin, kirol instantzietan aurkeztu behar duelako.

Gutxienez ere 2012tik, klubak jada planteatu izan du Nafarroako Zerga Ogasunarekin hitzarmen bat egiteko beharra, daukan zerga-zor handia erregulatu eta haren ordainketari konponbidea emateko.

2014an, finantza- eta kirol-egoera ahul horri egoera instituzional ahula gehitu behar zaio. Horren guztiaren emaitza izan zen Zuzendaritza Batzordeak dimisioa ematea eta Batzorde Kudeatzaile bat¹⁹ izendatzea. Finean, beste Zuzendaritza Batzorde bat hautatu zen.

Garai horretan, klubaren eta Zerga Ogasunaren arteko elkarrizketa batzuk hasi ziren, zeinak gerarazi egin baitziren, klubaren aldetik mintzakide baliodunik ez egoteagatik. Foru Ogasunak araudia aplikatuz jartzen zituen exijentziak eta baldintzak ikusita, klubaren Batzorde Kudeatzaileak zuzenean jo zuen parlamentu-taldeengana, bere zorra ordaintzea eta ikuspuntu finantzariotik bizirautea bideratuko zion formula baten bila.

Hartara, hiru parlamentu-taldeak proposatuta, Parlamentuko Osoko Bilkurak abenduaren 2ko 26/2014 Foru Legea Onetsi zuen. Haren bidez, berregituratu egin zen klubak Foru Komunitatearekin zeukan zorra.

Foru lege horrek, klubaren sustraitze sozialean eta hark transmititzen duen “Nafarroa” markaren indartzean babestuta, biziraupen finantzarioa erdieste aldera, klubak zerga-zorra guztiz kitatzeko ordainketa mistoko sistema edo formula bat ezartzen du:

- Ondasunetan egindako ordainketa, foru legean berariaz jasotzen dituen ondasunak emanda.

- Eskudiruko ordainketa, 30 urteko gehieneko mugaeguna duen geroratzeko baten bitartez.

Gainera, aurreko bi prozedurak arautzen ditu, Foru Komunitateko zergadunei, oro har, aplikatzen zaien zerga-araudi orokorrari berariazko aipamenik egin gabe.

Laburbilduz, honako hauek dira foru legearen alderdi nagusiak:

- Klubak Nafarroako Zerga Ogasunarekin 2014ko abenduaren 31n daukan zor guztia finkatzen du.

¹⁹ Figura hori ez dago aurreikusita Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legean. Hori dela eta, foru lege dekretu bat egin behar izan zen hura sartzeko.

- Berariaz aipatzen ditu klubak ordainketan eman behar dituen ondasunak. Haien balioa klubak eta Administrazioak berak adostasunez erabakiko duten tasazio-enpresa pribatu batek finkatuko du.

- Jasotako onasunen balioarekin estali ez den zerga-zorraren diferentzialaren 30eko geroratzea ezartzen du.

- Gainera, lau milioiko abal bat ematen du, Gobernuaren bermearekin.

- Klubari berari Sadar futbol-zelaia lagatzea eta Taxoareko instalazioak errentan ematea ezarri zen, 30 urterako.

Laburbilduz, klubak Foru Ogasunarekin daukan zerga-zorraren bilakaeran, bi une gako ikusten ditugu: 2003an, foru legez 18 milioiko abal bat eman aurretik, une horretara arteko zerga-zorra guztia -4,27 milioi- kitarazi zitzaion; 2014an, beste foru lege baten bitartez, zorra berregituratu zen, urte horretako abenduaren 31ra arte -52,82 milioi-, Foru Komunitatearen ondarea emanez, batetik, eta 30 urteko geroratzea baimenduz eta lau milioiko abala emanez, bestetik.

Testuinguru horretan, Kontuen Ganberaren jarduketa honakoan zentratu da, funtsean:

a) Klubak 2014ko abenduaren 31n zeukan zerga-zorraren zenbatespena berrikustea.

b) Aztertzea ea Nafarroako Zerga Ogasunaren jarduketak, 2005etik 2014rako epean, zerga-araudi orokorraren arabera izan diren.

c) 26/2014 Foru Legearen egiazko aplikazioa egiaztatzea, bereziki klubak entregatutako ondasunen balorazioari eta zerga-zorraren diferentzialaren kalkuluari dagokienez.

Lehenengo gaia dela-eta, egiaztatu eta kontrastatu da klubak data horretan daukan zerga-zorra 52,82 milioikoa dela. Zor horretatik, 6,51 milioi Ogasunak aplikatutako interes eta errekar-guei dagozkie. Kopuru horrek guztizko zorraren ehuneko 12 egiten du.

Aurreko zorra, aipatutako foru legeak aipatzen duenez, ordaintzen da Foru Komunitateari entregatuz klubaren jabetzakoak diren ondasunak, eta kopuruaren gainerakoa, 30 urteko geroratze baten bitartez, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Klubaren zerga-zorra ordainketa	Zenbatekoa
Ordainketan entregatutako ondasunen balio garbia	32.170.794
30 urtera geroratzea	20.650.086
Zerga-zorra, guztira, 2014ko abenduaren 31n	52.820.880

Horrenbestez, Nafarroako Zerga Ogasunaren jarduketei dagokienez, jotzen dugu klubaren zorraren kudeaketan zerga-araubidea aplikatu egin dela.

Zorraren geroratzeetan, jarduketa-irizpide orokor gisa, nagusitu da, kalte txikienaren gisara eta baliabide publikoen defentsa onenaren gisara, haiek baimentzeko aukera, haietan eskainitako bahitura eta bermeak exekutatzera jo aurretik. Aldi berean, klubaren jarduerak jarraitzea eta bizi-rautea lortu da. Horretarako, geroratze baimena, oro har, salbuespenezko printzipioan oinarritzen da, hain zuzen ere geroratzeen erregulazioak berak jasotzen duena, eta, kasu batzuetan, klubari exijitu beharreko bermeak dispentsatzen dira. Hala eta guztiz ere, esan beharra dago klubaren higiezin ia guztiek jada Foru Komunitatearen aldeko zamak badauzkatela, klubaren zorrak kobratuko diren berme gisa.

Klubari emandako geroratze/zatikatzeko horiei buruz, esan beharra daukagu, halaber, ezen, orokorrean, Osasuna dela geroratze-kopuru handiena duen zergaduna, bai kopuruari, bai zenbatekoari dagokienez, baimenak emandako denbora-epeetan.

Halaber, ikusi dugu zerga-zorraren printzipala handitu egin dela aplikatzekoa den legediak aipatzen dituen interes eta errekar-guekin. Halaber, klubari buruzko ikuskatze-jarduketa batzuk ere jasota daude, bai eta kasuko aitorpenak aurkezteko behin eta berriz aurkeztutako errekerimenduak ere.

26/2014 Foru Legeari dagokionez, Nafarroako Gobernuak zein Nafarroako Zerga Ogasunak haren estipulazioak bete egin dituzte, klubaren zerga-zorrari eta hura kitatzeari dagokienez. Alabaina, foru lege horri buruz daukagun iritzia kritikoa da, honako arrazoi hauek tarteko:

- Zergadun baten egoera partikularrari konponbidea eman nahi dio prozedura berariazko batzuen bitartez, eta, horrekin, klubak, gutxienez ere, beste zergadun batzuen aldean egoera pribilegiatua edukitzearen irudia zabaltzen da. Zehaztu beharra dago, dena den, klubaren zerga-zorraren kuantifikazioan ez direla aplikatu sortutako zenbatekoaren gaineko inongo doikuntzarik edo murrizketarik.

- Foru legeak erregulatzen du klubak entregatutako ondasunen tasazioa klub horrek eta Nafarroako Gobernuak adostasunez izendatutako enpresa batek eginen duela, baina ez du jasotzen prozesu horretan Nafarroako Zerga Ogasunak parte hartzea.

- Antzeman dugu klubaren orube bat badagoela foru legeak entregatzeko finkatzen duen ondasunen zerrendan ez dagoena, baina ez dakigu zein den hura kanpo uztearen arrazoia. Harrigarri gertatzen da zeren eta egun indarra duen hirigintza-antolamenduak irabazizko aprobetxamendu nabarmena esleitzen baitizkio. Gero, klubaren ekimenez, orube horren gaineko hipoteka bat egin da, Gobernuaren aldekoa, lau milioiko abala emateko berme gisa.

- Klubari emandako abal biziaren saldoa –11,21 milioi eurokoa– bermatuta leudeke lau milioitan baloratutako finka baten gaineko hipotekarekin, lehenengo abalaren saldo biziari dagozkion eta ordainketan emandako ondasunen zati batekin eta klubak etorkizunean lor ditzakeen ondasunekin.

- Klubaren finantza-egoeraren aurrean, aurreko abalen saldoak eragin negatiboa izan lezake Nafarroako Gobernuak nahitaez bete beharreko aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuetan.

- 30 urterako geroratzea ez dago behar bezala bermatua, zeren eta hipoteken bidez geroratutako zenbatekoen kasuan, Gobernuak baita finantza-entitateen aurrean abala ematen duena, jada bere jabetzakoak diren ondasunekin bermatuta dauden mailegu hipotekarioetan; geroratutako gainerakoa jaso atxikitako diru-sarrera batzuetatik jaso beharreko portzentaje batzuekin bermatzen da; horiek, ordea, gutxienez ere zenbatesten zailak dira edo, kasuren batean, efektiboki nekez gauzatuko direnak.

- Aurreikuspenen artean ez ditu jasotzen klubak foru legean bertan ezarritako baldintzetako bat ez betetzeko kasuan zer jarduketa egin beharko liratekeen, edo zein egoera sor litekeen us-tekabeen Osasuna Futbol Profesionaleko Ligan kategoriaz jaisteko kasuan.

- Aztertutako Jarduketa guztietatik gorabehera ekonomikoak erator litezke Nafarroako Gobernuarentzat berarentzat, klubak hirugarrenekin dauzkan betebeharrak betetzen ez baditu.

Laburbilduz, eta **amaierako ondorio gisa**, hona azpimarratu behar duguna:

Lehena. 2005etik 2014ra klubak Foru Ogasunarekin izan duen zerga-zorra gora egiten joan da progresiboki eta modu jarraituan. Hala eta guztiz ere, azken urteetan, eta bereziki 2013ko ekitaldian, klubak ahalegin handi bat egin zuen hura partzialki ordaintzeko.

Bigarrena. Nafarroako Zerga Ogasunak zor horri zergei buruzko araudian finkatutako erre-kargu eta interesak aplikatu dizkio. Gainera, jasota daude Nafarroako Zerga Ogasunaren ekintza batzuk: errekerimendu ofizialak, zerga-ikuskatzeak eta bestelako jarduketak. Halaber, ordainketan eman eta jaso diren ondasun ia guztiek Foru Komunitateko Administrazioaren aldeko zamak bazeuzkaten.

Hirugarrena. Aztertutako aldian, klubari zorraren geroratzeak baimendu zaizkio, legezko esparruaren barruan; ia guztiak salbuespenezko printzipioan oinarritu dira, eta horietarako premisa izan da baliabide publikoak hobeki defendatzeko konponbide hobe zela zorra geroratzearena zamak ez kobratzearena edo haiek exekutatzearena baino.

Laugarrena. Nafarroako Zerga Ogasunak, “Osasuna kasuko” epailearen instrukzioko sumari-oari jarraituz, ez du eroskeria- edo prebarikazio-deliturik egin klubari 2008an egindako ikuskatze-jarduketetan.

Bosgarrena. Zerga-zorreetan iritsitako bolumen handia, klubaren finantza-egoera eta kategoriaz jaitsi dela kontuan hartuta, Nafarroako Parlamentuak 26/2014 Foru Legea onetsi zuen, salbuespenezko eta banakako formula gisa. Horren bidez, zor hori osorik kobratzeko, klubak bere ondarea ordainketan emanen du eta gainerakoa geroratze baten bitartez ordainduko du. Foru lege horrek, gure ustez, argitu edo garatu beharko liratekeen alderdi batzuk badauzka.

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzailea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2015eko uztailaren 30ean

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

1. GEHIGARRIA

KANPOKO AUDITORIA-TXOSTENAK ETA CLUB ATLÉTICO OSASUNAREN FINANTZA-EGOERAREN BILAKAERA (2004/05 DENBORALDITIK 2013/14 DENBORALDIRA)

A) Kanpoko auditoriako txostenak

Klubaren 2004/05 denboralditik 2013/14 denboraldira bitarteko urteko kontuen auditoria-txostenak aztertuta, honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

1. Guztiek iritzi bat jasotzen dute, non salbuespen aipagarriak ageri diren. Salbuespen horiek kontabilitate-printzipioen aplikazio okerrei zein norainokoari buruzko muga eta zalantza aipagarriei dagozkie.

2. Txosten horietatik, nabarmendu beharra daukagu 2013/2014 denboraldiari buruzkoa, non honako salbuespen eta mugak ageri baitira:

a) Mugak:

- Auditoreek ez zituzten eduki klubak aurkeztutako aitorpenak, ikuskatzea zabalik zegoeneko aldiei buruzkoak. Ezin dute ondorioz atera haien kontabilizatzea edo/eta autolikidazioa zuzenak izateari buruz.

- Abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legearen babesean, 2012/13ko denboraldiko ibilgetua gaurkotu zen: hasierako birbaloratzearen zenbatekoa 22,23 milioikoa da. Ez genituen eduki klubak egindako kalkuluak, eta ezin izan da egiaztatu arau horrek ezartzen zituen legezko betekizunak bete diren. Ekitaldiaren edo denboraldiaren itxierako kontabilitate-balio garbia 22,03 milioikoa da.

b) Salbuespenak:

- Lur-zatien eta eraikinen balioari buruzko 2004ko eguneratzea, hasiera batean 11,94 milioi euroko kopurukoa. Eguneratze hori egin da oro har onartzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideekin bat etorri gabe eta, horrenbestez, ondasun horiek balantzean gehiegi baloratuta daudela. Ekitaldiaren edo denboraldiaren itxierako kontabilitate-balio garbia 4,20 milioikoa da.

- Urteko kontuetan ez da sartu Fundazioaren zorren andeatzearen ondoriozko balorazio-zuzenketa. Zor horiek 12,60 milioi egiten dute. Fundazioak egoera finantzario eta ondarezko ahula dauka, eta klubaren beraren finantza-laguntza behar du.

- Klubak denboraldiko aparteko diru-sarrera gisa 9,11 milioi erregistratu ditu, kategoriaz jais-tearen ondoriozko diru-sarreraren galerari buruzko akordiotik heldutakoak. Haiei buruzko Errege-lamenduaren arabera, diru-sarrera horien sortzapena 2014/2015 denboraldiari dagokio.

- Finantza-gastuak 1,59 milioi gutxituta daude; horren arrazoia da ez dela erabili zerga-zorren hainbat geroratzetan erabilitako interes-tasa efektiboaren metodoa.

- Kontuek ez dute langileen gastua jasotzen, 0,47 milioi egiten duena: jokalaria batekin klubak duen zorrari dagokio. Zenbateko hori ekitaldia amaitu ondoren barkatu egin da. Planeko 23. zenbakiko balorazio-arauen arabera, gastu horiek 2013/2014ko urteko kontuetan ageri beharko lukete.

c) Azpimarra-lerrokada

Zenbait faktore badaude zalantzan jartzen dutenak funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioaren aplikazioa zalantzan jartzen dutenak, nagusiki kategoriaz jais-tearen ondorioz eta horrek berarekin ekarri behar duen diru-sarreraren gutxitzearen ondorioz. Zuzendaritza Batzordeak bideragarritasun plan bat aurkeztu zuen, zeina egungo Batzorde Kudeatzaileak gaurkotu baitu diruzaintza-plan baten bitartez.

3. **Arlo fiskalari eta Nafarroako Gobernuarekiko harremanei** buruz gainerako auditoria-txostenek eta urteko kontuek daukaten informazioari dagokionez, honako hau esan behar dugu:

- Epe luzera geroratutako zor bat badago, Nafarroako Zerga Ogasunarekikoa, 20,1 milioi egiten duena. Ezin izan dira egiaztatu geroratze-akordio horietan bildutako zergak, aldiak eta edukia (salbuespena 2011/12 denboraldiari buruzko txostenaren iritzirako muga bat badagoelako).
- Kluba akordio batera iritsi da bere zerga-zorra geroratzeko, baina akordio hori ez zitzaigun eskuratu. Ez dakigu zein kontzepturi buruzkoa den. Ez dira aurkeztu, ezta ere, klubak denboraldian hainbat zerga direla-eta aurkeztutako aitorpenak (salbuespena 2011/12 denboraldiari buruzko txostenaren iritzirako muga bat badagoelako).
- Arlo fiskalean erabilitako jokamolde eta irizpideak direla eta, egoerari buruzko balantzean erregistratuez gainerako pasiboak sor litezke, objektiboki ezin zenbatets daitezkeenak (salbuespena, 2004/05, 2005/06, 2006/07, 2007/08 eta 2008/09 denboraldiei buruzko txostenetan iritzia emateko zalantzak daudelako).
- Klubak Nafarroako Zerga Ogasunarekiko zor hartzekodunak birsailkatu ditu, epe laburretik epe luzera –10,08 milioi dira–, baina ez dago zorra birfinantzatzeko bi aldeek sinatutako akordio-rik (salbuespena, 2008/09 denboraldiari buruzko txostena emateko zalantzak daudelako).
- Epe luzeko zorren barruan, Nafarroako Zerga Ogasunaren epe laburreko 9,5 milioiko zorra birsailkatu da, ordainketak egiteko egutegi jakinik gabe, eta, gaur egun, negoziazio-fasean ago (informazio hori 2009/10 eta 2010/11 denboraldietako urteko kontuen oroitidazkian jasota dago).
- Epe luzeko zorren barruan, Nafarroako Zerga Ogasunaren epe laburreko 38,4 milioiko zorra birsailkatu da (informazio hori 2012/13 denboraldiko urteko kontuen oroitidazkian jasota dago).
- Klubak aitortzen du Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko 152. artikuluan ezarritakoa betetzen duela, eta, horrenbestez, aipatutako zergatik partzialki salbuetsita dauden entitateen araubide berezia duela (informazio hori urteko kontu guztien oroitidazkietan jasota dago).
- 1/2003 Foru Legea aplikatuz, klubak bere ondare ia guztia hipotekatu du Nafarroako Gobernuarekin, 18 milioiko abala eman ziezaion (informazio hori 2004/05 denboraldiari buruzko urteko kontuen oroitidazkian jasota dago).

4. Kanpoko auditoriako txosten guztiak auditoreen enpresa berak egin ditu.

5. Azkenik, aipatu beharra dago 2015eko ekainean partzialki altxatu zela zuzendarien eta klubeko beste langile batzuen aurkako jarduketa irregularrengatik sumario judizialaren sekretua. Sumarioan, instrukzioa egin duen epaileak zalantzan jartzen ditu klubaren azken urteetako urteko kontuak.

B) Magnitude finantzario nagusien ebaluazioa

Hurrengo taulan erakusten dugu, txostenaren xedea betetze aldera, zein izan den magnitude finantzario nagusien bilakaera.

Taula: Club Atlético Osasunaren magnitudeen bilakaera

Magnitudeak (euroak, milakotan)	2004ko ekaina	2005eko ekaina	2006eko ekaina	2007ko ekaina	2008ko ekaina	2009ko ekaina ⁽¹⁾	2010eko ekaina	2011ko ekaina	2012ko ekaina	2013ko ekaina	2014ko ekaina
Ondare garbia	3.675	5.573	7.441	16.768	15.810	15.485	15.311	16.358	14.566	7.954	3.466
Finantza-entitateekiko epe lu- zeko zorra	19.910	17.306	16.844	16.663	16.315	21.907	17.340	18.015	14.199	11.854	9.443
Finantza-entitateekiko epe labu- rreko zorra	3.500	8.971	11.331	11.801	19.970	8.629	10.115	13.329	12.393	6.960	3.368
Finantza entitateekiko zorra	23.410	26.277	28.175	28.464	36.285	30.536	27.455	31.344	26.592	18.814	12.811
Ogasun Publikoarekiko epe laburreko zorra	2.754	4.889	3.196	5.969	11.131	7.772	12.131	6.269	12.110	9.750	13.935
Ogasun Publikoarekiko zorra, epe luzeke zor gisa birsailkatua	0	0	0	0	0	10.084	9.500	9.500	20.100	38.400	32.406
Ogasun Publikoa hartzekodun	2.754	4.889	3.196	5.969	11.131	17.856	21.631	15.769	32.210	48.150	46.341
Gizarte Segurantza hartzekodun	0	0	0	74	73	67	82	67	78	110	1.007
Osasuna Fundazioaren zorra	d. ez	2.162	1.431	937	3.377	6.205	7.138	9.687	8.720	12.370	12.595
Maniobra-funtsa	-10.492	-9.843	-7.797	-401	-15.066	5.680	-5.558	6.418	2.997	-361	-12.204
Ekitaldiko emaitza	1.827	1.769	2.950	9.458	-826	-193	-42	1.498	-1.712	3.107	-2.258
Langile-gastuak	11.955	17.021	15.937	20.091	21.812	25.096	20.397	23.174	23.457	21.169	21.788
Enplegatuen batez besteko ko- purua ⁽²⁾	d. ez	56	56	72	72	72	180	176	175	183	187
Negozio-zifraren zenbateko garbia	15.044	20.296	18.382	26.018	25.281	29.446	24.818	24.448	25.403	28.593	25.824
Emaitza berezia/ibilgetuaren besterentzea	6.348	5.156	5.730	11.567	4.614	6.401	4.451	9.941	3.847	4.723	2.285


(1) Kontabilitate plan orokor berria aplikatzea

(2) 2010etik, enplegatu kopuruari buruzko datuak jasotzen ditu etxean jokatutako partida-egunetan lanean diharduten aldizkako langile lotuak.

Aurreko taula aztertuta, honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:


- **Ondare garbia:** Ikus daitekeen bezala, azken bi denboraldietan magnitude horrek gutxitze oso nabarmena izan du, eta 2014ko ekainean -3,47 milioi- 2004ko ekainekoaren antzeko kopurua egiten du. Hori hala da, gainera, nahiz eta magnitude horrek, hari aplikatutako aktiboen birbalorazioen ondorioz, gorakada bat izan duen.

Grafikoki²⁰, ondorengo hau izan da haren bilakaera:



- **Finantza-entitateekiko zorra:** Magnitude horrek 2008ko ekainean iritsi da baliorik handiena, 36,29 milioirekin. Gero, progresiboki gutxitzen joan da 2014ko ekainean 12,81 milioikoa izateraino; izan ere, azken horixe da aztertutako segidako zorpetze txikiena.

Irudi bidez:



²⁰ Ondoren azaltzen ditugun irudi guztiak urteetako bakoitzaren ekainaren 30eko denbora-esparruari dagozkio.

2014ko ekainaren 30eko mailegu biziek eta haien zenbatekoak hurrengo taulan ageri direnak dira:

Entitatea	Emateko data	Muga-eguna	Maileguan emandako zenbatekoa	Ordaintzeko dagoen kopurua ⁽³⁾
Banco Popular ⁽¹⁾	2003ko otsaila	2020ko maiatza	4.508	2.103
Bankinter ⁽¹⁾	2003ko otsaila	2020ko maiatza	4.508	2.103
CaixaBank ⁽¹⁾	2003ko otsaila	2020ko maiatza	9.015	3.606
CaixaBank ⁽²⁾	2009ko martxoa	2018ko martxoa	8.600	4.643
CaixaBank	2003ko otsaila	2014ko uztaila	3.500	328
Finantza-entitateekiko zorpetzea, guztira			30.131	12.783

⁽¹⁾ Nafarroako Gobernuak abalaturako kredituak, 1/2003 Foru Legearen babesean. ⁽²⁾ Taxoaren lur-zatien gaineko berme hipotekarioa. ⁽³⁾ Ez ditu biltzen epe laburrean sortutako interesak, 28.742 euro egiten dutenak

• Nafarroako Zerga Ogasunarekiko zorra Kontabilitatearen ikuspuntutik, Ogasunarekiko zorraren zenbatekoa progresiboki handitzen joan da –2,75 milioitik 46,34 milioira–, eta azken denboraldietan balio handienetara iritsi da.

Bilakaera hori honako irudi honetan ikus daiteke:



Klubak, 2008/09 denboralditik, zor hori epe luzeko gisa ala epe laburreko gisa birsailkatzeko kontabilitate-jokabidea izan du. Jokabide hori dela eta, salbuespen-oharrak jaso izan dira hainbat auditoria-txostenetan, zeren eta klubak ez baitu horri buruzko behar adina babes edo/eta informazio eman.

2013/14 denboraldiko oroitidazkiak daukan informazioari jarraituz, honakoa esan dezakegu:


a) Ogasunarekiko epe laburreko zorra –13,93 milioi– honako kontzeptu hauei dagokie (euroak, milakotan):

Kontzeptua	Zenbatekoa
PFEZa	6.134
BEZa	4.244
Beste zerga batzuk	1.112
Ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	2.445
Ogasun Publikoa epe laburreko hartzekodun gisa, guztira	13.935

b) Epe luzekotzat birsailkatutako Ogasunarekiko zorra –32,41 milioi– dela-eta, oroitidazkiak ez du aipatzen kasuk zerga-kontzeptua zein den, eta ezarritako urteko ordainketak baizik ez du aipatzen. Zenbateko hori honela xeheka daiteke (euroak, milakotan):

Denboraldia	Zenbatekoa
2015/16	3.162
2016/17	4.352
2017/18	5.289
2018/19 eta hurrengoak	19.603
Ogasun Publikoa epe luzeko hartzekodun gisa, guztira	32.406

• Osasuna Fundazioak klubarekin daukan zorra. Zor horren bilakaerak hazkunde progresiboa izan du: 2,16 milioitik 12,60 milioira. Irudi bidez:



Aztertutako oroitidazkiek eta auditoria-txostenek daukaten informazioari jarraituz, honakoa esan dezakegu:

a) 1999ko abuztuko batzar nagusi berezian eta 2001eko martxoko eskritura publikoaren bitartez, Club Atlético Osasuna Fundazioa eratu zen, honako xede nagusi honekin: klubaren kirol-, kultura- eta gizarte-dimentsioa zabaltzea eta sustatzea, irabazi asmorik gabe. Fundazioak klubarekiko daukan zorrak klubak egindako gastuei dagozkie, futbol profesionalari ez dagozkionak eta Fundazioari eskualdatzen zaizkionak.

b) 2005/06 aldian, klubaren eta haren fundazioaren arteko kontratu bat sinatu zen. Haren bidez, fundazio horri ordaindu beharreko zenbatekoak sartzen dira, prestakuntza emateko eskubideen kontzeptuan jokalariei ordaindu beharrekoak.

c) 2012ko ekainaren 30ean, beste kontratu bat sinatu zen Fundazioarekin, bi erakundeen arteko harremanak araupetzeko asmoz: Fundazioaren aldeko 3,5 milioiko ekarpena ekarri zuen. Horren bidez arautu zen klubak harrobiko jokalaria guztien eskubideak eskuratzen dituela eta urtero, 2012/13 denboralditik aurrera, Fundazio hori lagatzen diola klubak telebista-eskubideen kontzeptuan fakturatutako kopuruaren ehuneko 10.


d) 2014ko abuztuan, bi dokumentu sinatu ziren, klubaren eta Fundazioaren arteko harremanak arautzen dituztenak:

Lehen. Klubaren eta Fundazioaren arteko mailegu-kontratu bat, 12,60 milioikoa, 25 urtean kobratzekoa. Urtero amortizatu beharrekoa da eta merkatuko interes-tasa bat dauka. Halaber jasotzen da klubak Fundazioaren galerak bere gain hartzeko daukan betebeharra, maileguak irauten duen urteetan.

Bigarrena. Klubaren eta Fundazioaren arteko lankidetzaz-hitzarmena. Horren bidez, klubak amortizatu beharreko kuotaren gehi interesen pareko zenbatekoa egiten duen kopurua emanen du dohaintzan. Hitzarmen horrek urtebeteko indarraldia dauka, eta urtero berrituko da Fundazioak ekitaldian egin beharreko jardueren oroitidazki bat aurkeztuta.

c) Fundazioaren zorren kontabilitate-tratamendua dela eta, hainbat auditoria-txostenetan, salbuespenak jaso dira norainokoaren mugak direla eta –auditoreek ez baitute behar adina informazio egindako kuantifikazioei buruz–, bai eta beste salbuespen batzuk ere zor horien narriatzearen ondoriozko balioespenik ez egoteagatik.

- Maniobra-funtsa. Hiru denboralditan izan ezik, gainerakoetan balio negatiboak egon dira magnitude horretan. Bereziki nabarmentzekoa da 2007/08 denboraldia, non 15.07 milioiokoa egon baita, eta aztertutako azken denboraldia, 12,20 milioirekin. Bilakaera hori grafikoki ikus daiteke:



- Ekitaldiko emaitza. Balio oso askotarikoak ageri dira –bai positiboak, bai negatiboak– aztertutako segidan zehar, eta ez dugu antzeman jokaera jakinik egin denik. Onurarik handiena 2006/07 denboraldian antzeman dira, 9,46 milioirekin; galera handienak, berriz, 2,26 milioioak, 2013/14 denboraldian.

Irudi bidez, honela azal daiteke:



2013/14 denboraldiko negozio-zifra garbiaren kopurua, honakoek osatzen dute (euroak, milakotan):

2013/14 denboraldiko negozio-zifra	Zenbatekoa
Txarteldegia	455
Bazkideak	3.689
Ikus-entzunezkoen eskubideak	18.589
Denda	509
Publizitatea	2.582
Guztira	25.824

Kategoriaz jaistearekin, ikus-entzunezkoen eskubideak 2,5 milioi inguru jaitsiko dira. Halaber, jaitsiera horrek berarekin ekarriko du lehenengo plantillako langileen gastua jaitea egungo 18 milioitik sei milioira; jaitsiera hori Futbol Liga Profesionalaren arauk ezartzen dute.

Halaber, emaitzaren barruan, nabarmentzekoak dira ibilgetuaren besterentzetik heldutako aparteko emaitzak, funtsean jokalarien traspasoari dagozkionak.

2. GEHIGARRIA**NAFARROAKO GOBERNUAK CLUB ATLÉTICO OSASUNAREN ALDE EGINDAKO AURRE-KONTU-GASTUAK ETA ORDAINKETEN KONPENTSazioak (2005etik 2014ra BITARTEKO EKITALDIAK)**

Nafarroako Gobernuaren kontabilitateari jarraituz, kontusail gisa honako gastuak eta ordainketen konpentsazioak identifikatu ditugu Club Atlético Osasunaren IFZaren alde, 2005etik 2014ra doan aldian. Zenbatekoa eurotan dago adierazia.

Kontusailaren izena	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	Guztira
<i>2. kapitulua</i>											
Protokolo-atentzioak eta ordezkarietakoak	16.640	21.700	16.350	14.880	15.990	19.290	19.812				124.662
Publizitatea eta propaganda	33.280	1.500.000	1.500.000	1.500.000	1.500.000						6.033.280
Zenbait gastu	52.200			880	1.980	1.532.690	1.566.030	360			3.154.140
<i>4. kapitulua</i>											
Enplegu plana: Diru-laguntzak									4.000		4.000
Kirol-entitateentzako laguntzak	25.339	37.420	40.000								102.759
Kirol-entitateekiko akordioak				81.500	81.500	67.680	68.497	60.400	25.323	10.127	395.027
Aitortutako betebeharrak, guztira	127.459	1.559.120	1.556.350	1.599.470	1.599.470	1.619.660	1.654.339	60.760	29.323	10.127	9.813.868
Protokolo-atentzioak eta ordezkarietakoak	14.880				960	26.076					41.916
Zenbait gastu						766.850	765.840	780.300			2.312.990
Kirol-entitateentzako laguntzak	23.500										23.500
Kirol-entitateekiko akordioak								60.400			60.400
Konpentsazioak, guztira	38.380	0	0	0	960	792.926	765.840	840.700	0	0	2.438.806

Hau da, aztertutako aldian, Gobernuak klubaren alde egin dituen aurrekontu-gastuak 9,81 milioioak izan dira. Gastu horietatik, honakoak nabarmendu behar ditugu:

- Protokolo-atentzioak eta ordezkarietakoak: Partida batzuetarako sarreraren gastua, denboraldirako txartelenak eta 1. palkoko 18 tokiren errentamendua islatzen dute.
- Kirol taldeen publizitatea eta propaganda-sustapena. Sadar estadioko publizitate-gastuak egozten zaizkio. Halaber, 2006tik 2009ra Osasunaren aldeko kirol babesletzako kontratuarengatik gastuak sartzen dira. Guztira, urtean 1,5 milioi dira. 2010ean, kontzeptu bera dela-eta 1,53 milioi ordaindu ziren, "askotariko gastuak" aurrekontu-kodearen pean; 2011n, berriz, 1,56 milioi ordaindu ziren. 2011 da babesletza itundu den azken urtea.

Azken batez, babesletzagatik, 9,09 milioiko gastua sortu zen Nafarroako Gobernuarentzat.

- Askotariko gastuak: Aurreko puntuan jada aipatutako babesletza-gastuez gainera, atal ekonomiko honek honakoak ere jasotzen ditu: partida jakin batzuetarako sarrera-gastuak, "presentzia instituzionala" izenpeko gastuak partida jakin batzuetarako eta publizitate-babesletzarengatik kopuru txiki batzuk.
- Transferentzia arruntak: Enplegu planaren diru-laguntza gisa, Osasunari 4.000 euro ordaindu zitzaizkien 2013an, ezgaituak kontratatzeagatik. Klub eta elkarteentzako akordio eta laguntzen atalaren pean, zenbait diru-laguntza jasotzen dira, lehiaketa nazionalera joatekoak, emakumezkoen futbol dibisiorako laguntzak eta gizonezkoen beste dibisio batzuetarako laguntzak eta abar.

Aزتututako aldian, klubari egindako ordainketa batzuk konpentsatu ditu Nafarroako Gobernuak, 2,44 milioi egiten dutenak. Konpentsazio horiei dagokienez, honako hau esan behar dugu:

- 2005etik 2009ra bitarteko ekitaldian, agentzia exekutiboak egindako ordainketa batzuk konpentsatu ziren, zeinak, lehenengo urtean, 2004ko abenduko PFEZaren atxikipenei zegozkien – 38.380 euro– eta bigarren urtean, berriz, geroratze bereziei –960 euro–.

- 2010eko babesletza osorik konpentsatzen da 2010eko eta 2011ko ekitaldietan; 2011ko babesletzatik, berriz, soilik 2012ko azken sei hilekoa konpentsatu zen. Konpentsazio horiek bideratzen dira, funtsean, zatikatzeen epeetara, PFEZaren agentzia exekutiboko atxikipenetara eta garaiz kanpoko aitorpenengatiko errekaruetara.

Zehaztu beharra dago konpentsazio horiek, egiazki, 2010ean hasi zirela, hau da, geroratzeak baimentzeko akordioetan ordainketarako berme gisa babesletzaren ondoriozko diru-sarrera horien ordainketa jaso zenean.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Emandako epearen barruan, Nafarroako Zerga Ogasunak eta Club Atlético Osasunak alegazioak aurkeztu dizkiote behin-behineko txostenari.

Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak aurkeztutako alegazioak behin betiko txostenean sartu dira; horrenbestez, ez ditugu transkribatu. Aipatutako txostenaren testuan bera-riaz aipatzen dira alegazio horien arabera sartutako edo/eta aldatutako lerroak; funtsean, zehaztapenak, xehetasunak eta informazio berrien ekarpenak dira.

Club Atlético Osasunak aurkeztutako alegazioa, berriz, ondoren transkribatzen dugu, hitzez hitz:

"Club Atlético Osasunari igorri zaio Kontuen Ganberak egindako behin-behineko fiskalizazio-txostena, hura dela-eta egokitzen jotzen dituen alegazioak aurkez ditzan.

Klub honek uste du, horrenbestez, eta behar den errespetuarekin esanda, behin-behineko txosteneko 5. zenbakiko ondorioa, klub honen ustez, garaiz kanpoko dela, eta Nafarroako Gobernua Kontuen Ganberari eskuratutako eskudantzetatik kanpoko.

Gobernuaren aginduan ageri den bezala, 26/2014 Foru Legean ezarritakoari jarraituz, kontua zen Nafarroako Ogasunak Club Atlético Osasuna dela-eta 2006-2014 aldian egindako –edo egin behar izan zituen– jarduketa guztien auditoria bat egitea.

Inolaz ere ez zaio eskatu jardun eta azter zezan 26/2014 Foru Legea, non agindu hori aipatzen baita. Hori dela eta, alde honek uste du txosteneko 5. puntua kendu egin behar dela eta soilik jaso beharra dagoela Foru Ogasunak Club Atlético Osasuna dela-eta 2005-2014 aldian jardundakoa, baina ez, inolaz ere, aipatutako legeari buruzko iritzia, zeina ez baita sartzen errekerimenduan aipatzen diren eskudantzetan."

Sinatuta: Angel Ardanaz Rípodas.

KONTUEN GANBERAREN ERANTZUNA, CLUB ATLÉTICO OSASUNAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI EMANA

Club Atlético Osasunak aurkeztutako alegazioak aztertu ditugu, eta behin-behineko txostenaren ondorioak aldarazten ez dituztenez, txosten hori behin betikotzat jotzea erabaki dugu.

Halere, Ganbera honek honako hau adierazi beharra dauka:

Lehen. Club Atlético Osasunak Nafarroako Foru Komunitatearekin daukan zorraren berregituratzea onesten duen 26/2014 Foru Legea betez, eta Nafarroako Gobernuak abenduaren 17an horri buruz hartutako erabakiaren ondoren, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2014ko abenduaren 22ko bilkuran erabaki zuen Kontuen Ganberari eskatzea *"zorraren berregituratzea onesten duen auditoria bat egin dezan Nafarroako Ogasunak Osasunari dagokionez 2005etik 2014ra bitarte egin dituen, edo egin behar zituen, jarduketa guztiei buruzkoa"*. Auditoria hori egitea foru lege horren zioen azalpenean jasotako helburuan sartzen da, alegia, *"klubak osorik kitzatzea altxor publikoarekin hartutako betebeharra"*.

Bigarrena. Foruaren Hobekuntzan eta Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legean xedatutakoari jarraituz, erakunde honi dagokio *"Foru Komunitateko alor edo sektore publikoko ekonomia- eta finantza-kudeaketaren kanpoko fiskalizazioa, orobat publikotzat jo daitezkeen fondotz"*. Bestalde, aipatutako foru legeko 2. artikuluko 2. idatz-zatiak honako hau xedatzen du *"Kontuen Ganberari dagokiola arlo pribatuaren onurarako diru-laguntzen eta sektore publikoak ematen dituen gainerako laguntzen fiskalizazioa"*. Horrenbestez, Kontuen Ganberak Foru Ogasuna dela-eta daukan fiskalizatze-gaitasuna, lehen aipatutako 26/2014 Foru Legean jasotako agindu zehatzaz haratago, Foruaren Hobekuntza buru duen arauditik bertatik datorrela.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuarentzat egindako auditoriarako, Kontuen Ganberak funtsezkotzat jo du bere txostenean aztertzea eta jasotzea aipatutako 26/2014 Foru Legea aplikatzeko Nafarroako Gobernuak egindako jarduketak. Auditoria publikoari buruzko nazioarteko arauak jarraituz –erakunde honek nahitaez betetzekoak dira– honelako egitateak nabarmendu beharrekoak dira fiskalizazio-txostenean.

Laugarrena. Lehendakaritza honi dagokio, erakundearen organo eskudun eta erantzukizun gorenekoa den aldetik, zehaztea fiskalizazio-lana norainokoa izanen den, eta jo du beharrezkoa zela aipatutako jarduketak berrikustea, zeren eta, hala egin ezean, Kontuen Ganberak, auditoria arauak urratzeaz gainera, informe osatu gabe bat eskainiko bailioke Nafarroako Parlamentuari Foru Ogasunak gai hau dela eta egindako jarduketei buruz. Bestalde, alegazioetan adierazitakoaz bestera, Ganbera honek uste du edukiak eskatutako auditoriaren helburuekin zuzeneko lotura duela, eta, horretaz gainera, 26/2014 Foru Legearen aplikazioa aztertuko ez lukeen txosten batek gabezi handiak izanen lituzkeela.

Iruñean, 2015eko uztailaren 30ean

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas